

Herririk Herri |3|

EAJk eta Aralarrek tasen gaineko akordio "puntuala" lortu dabe Durangon

Ekonomia |10|

CCOO eta zuzendaritzaren arteko ika-mika Transformados Ibaizabalen



Berbaz |9|

S. Bilbao: "Zinegotzi kargua itzita, erronka barriak daukadaz CCOOn"



Castellersek ikuskizuna eskaini eben Azokaren aurkezpenean. Iban Gorriti

Euskal Herriak eta Kataluniak bat egingo dabe aurtengo Azokan

- > Gerediaga Elkarteak abenduaren 4tik 8ra ospatuko den 44. Liburu eta Disko Azoka aurkeztu dau. Katalunia izango da herrialde gonbidatua
- > 'Argizaiola' omen-saria ikastolen hasierako urteetan andereño izandakoen ordezkari moduan aukeratutako bost irakasleri emongo deusie

13

Gehigarria



Ikur frankistak kentzeko eskatu dau Gobernu Taldeak

Atxondo• Herriko sinbolo frankistak kentzea erabaki dau udalbatzarrek, asteon, gai horren harira aurkeztutako mozinoa onartuz. Idatzia-
ren edukiagaz baino, "moduagaz"
bat ez datorrela dino EAJk.

4

Erakustaldi handi bi Cafés Baquéko final-laurdenetan

KIROLA• Datorren eguaztenean Cafés Baqué Pilota Torneoko finalerdia jokatuko ditue, Atxondoko pilotalekuan, 19:00etan hasita. Herenegun ikuskizun bikaina eskainita sailkatu ziren Arratibel kadeteetan eta Jauregi gazteetan. Jauregi zarauz-tarrak, batez be, harrituta itzi zituen pilotazaleak.

25

•Berriz

Euskararen Astea abiatuko dabe Etxeren kontzertuagaz

6

•Izurtza

Aho batez onartu dabe 2010eko aurrekontu proposamena

8

APAINGARRI ETA INDUSTRIALA

Pinfaras
Sagasta
Pinfarak

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

- Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Biolentzia matxista salatuko dabe, beste behin, udalek gizarteagaz batera

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna gogoratuko dabe, asteen

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunagaz bat egingo dau gizarteak; baita Udalek be. *Beldur barik!* lelopean biolentzia matxista salatzeko hainbat ekintza antolatu ditue, eguaztenerako, Durangaldean. Gazteengan arreta berezia jarritz, neska gazteei zuzendutako da aurtengo kanpaina.

Durango, Elorrio, Atxondo, Iurreta, Berriz eta Abadiñon deitu ditue elkarretaratzeak azaroaren 25erako

Durangon 13:00etan deitu dabe elkarretaratzea, Udalak eta Berdintasunerako Udal Kontseiluak, Udaletxeko arkupeetan; 20:15ean, Durangoko Plataforma Feministagaz deitutako manifestazioak irtengo dau Andra Maritik. Durangok joan zen asteen onartu eban Adierazpen Instituzionala, eta Elorrioren horretarako udalbatzarra deitu dabe eguaztenean; elkarretaratzeko hitzordua 19:00etan ipini dabe. Atxon-

don bardin—asteon batu da udalbatzarra— eta bietan leiho eta balkoiatarako puntu moreak banatu ditue. Emakume elkarrekin batera egin dabe deia.

Abadiño, Iurreta, Berriz Iurretan Adierazpen Instituzionala eta Iurretako Emakumeen Agiria irakurriko ditue, 19:00etan, Ibaurretxen; gero, pankarta jarriko dau Anderebidek Goiuria kulturgunean. Abadiñon, 20:30ean egin dabe hitzordua Errotan, eta Berrizen, 19:00etan, Urriaga plazan; Udaletxean, Berrizburun eta Kultur Etxean dagoz puntu moreak.

Mallabiko Kultur Etxean 'Emakumeen aurkako indarkeria' berbaldua dago 14:30ean (Loredi Salegi-UNEDeko irakaslea genero biolentzian), eta Zaldibarko pleno aretoan, 17:30ean, *Solo mia* filma eta kafe-tertulia (Helmuga elkar-tea). Azaroaren 25aren bueltako ekintzak asko dira (agendan). ■ A.B.

Azaroaren 25aren haritik hainbat dira egunotarako eratutako ekintzak

DURANGO

Udalak eta Anbotok asteen sinatu dabe hitzarmena

Diru-laguntza 2009-2011 urteen artean jasotzea onartu dau udalbatzarrak



Bilkura aretoan sinatu dabe hitzarmena Anbotoko lehendakariak eta alkateak. Kepa Aginako

Durangaldeko Herri Komunikabideakeko lehendakari Gorka Barrietabeña eta Aitziber Irigoras alkateak hitzarmena sinatu dabe asteen. Adostutako akordio horren bitartez, *Anbotok* urtean 40.000 euroko diru-laguntza jasoko dau. Alkatearen berbatan, "Euskara Biziberritzeko Planaren irizpideak jarraituz", euskara bultzatzeko helburuagaz hartu dabe erabakia. Gaineratu dauenez, aurrekontuen aldarazpena Aralar eta EB-Berdeekin adostera, hitzar-

mena sinatzea erabaki eben. Ildo horretatik, Aralarrek azaldu dauenez, *Anbotorekin* "justizia" eginda, informazioa euskaraz emoten dauen komunikabide bategaz hitzarmena sinatuz: "Beste udal batzuek biztanleko euro bi emoten

Gorka Barrietabeña: "Anbotok daukazen erronkei erantzun ahal izateko pausu hau garrantzitsua da"

ditue eta Durango be bide horretan dabil".

Irailean egindako udalbatzarrean hitzarmena 2009-2011 urteetara luzatzea erabaki eban Udalak (EAJ, Aralar, EB-Berdeak eta PSE-EE alde agertu zen eta PP kontra; Talde Mistoa abstenitu egin zen).

Anbotoko presidenteak adierazi dauenez, "pozik gagoz, urte askoan Anbotok egindako eskarri erantzun deusalako Udalak, eta daukaguzen erronkei erantzuteko garrantzitsua delako". ■ J.G.

Durangaldeko Gurutze Gorriak hirugarren anbulantzia bat dauka



Gurutze Gorria

Ibilgailu unitatea sendotuko dauen 3. anbulantzia dauka 50 urtean diharduen Durangaldeko Gurutze Gorriak; 70 boluntario dira. Alcoa Fundazioaren eskutik 29.400 euro (44.000 dolar) jaso ditue, anbulantzia egokitu eta beharrezko material sanitarioz eta ekipamenduz hornitzeko. Ingurumen, gazteriaren hezkuntza eta formazio zein familiaren osasun eta segurtasuneko egitasmoak lagundu ditu Alcoak; premia berezidun herritarrei be bai. Ekitaldian Gurutze Gorriko eta Alcoako arduradunak izan ziren.

LTD dekodifikatzailea doan eskuratzeko plana abiatu dabe

Baldintza batzuk bete behar dira Lurreko Tebista Digitala doan lortzeko

Laster desagertuko da tebista analogikoa, Lurreko Tebista Digitalerako (LTD) jauzia eginez. Horren aurrean, LTD dekodifikatzailea doan eskuratzeko plana jarri dau martxan Udalak. Espainiako Gobernuo Industri, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren eskutik abiatu dabe ekimena. Planaren hobariak jaso ahal izateko Durangon erroldatuta egon behar da, eta baldintza batzuk bete behar dira.

Honako hiru kolektiboetako batean dagoenak dauka plan horren onuradun izatea: ikusmenean edo entzumenean %33tik gorako minusbalioa izatea, 65 urte baino gehiago izatea eta 1. edo 2. mailako menpekotasuna izatea,

edo, 80 urte baino gehiago izatea eta bakarrik bizitzea edo 80 urte gorako beste nonogaz bizitzea. Halan jakin eragin dabe udal arduradunek.

Azaroaren 30a bitartean

Dagoeneko badago LTD dekodifikatzailea lortzeko eskaria egitea. Horretarako, Herritarren Arretarako Zerbitzura (HAZ) edo Nagusien Udal Egoitzara jo leiteke. Horrez gainera, Udalaren webgunea be erabili leiteke: www.durango-udala.net. Azaroaren 30a arte egin leikie eskaria plan horren onuradun diren herritar guztiek. Informazio gehiago gura dauenak, honako telefono zenbakira deitu leike: 94 603 00 00. ■ A.B.

Eskariak HAZn, Nagusien Udal Egoitzan edo Udalaren webgunearen bitartez egin leitekez, hilaren 30a bitartean

LTD dekodifikatzailea lortzeko hobariaren onuradunak Durangon erroldatutakoak izan behar dabe



Tasetan "akordio puntuala" lotu dabe EAJk eta Aralarrek

EAJk, PSE-EEK eta Aralarrek egin dabe 2010erako ordenantza fiskalen alde

Zaborren eta estolderiaren gaineko tasa, TAOaren gainekoa eta ibilgailuak biltzira eroategaitikoa %2 igongo dira 2010ean, gainerako tasa eta zergak dagozenez mantenduz. Aralarrek gaz akordio "puntuala" lotu dau EAJk, "errenta baxuenak babestuta" geratu direlako. Izan be, Aralarrek proposatuta %75eko hobaria be lotu da zabor eta estolderiaren gaineko tasan, lanbide arteko gitxiengo soldata bider 1,5 baino gitxiago irabazten dabenez.

Horretara, "izoztuta geratzen da tasa hori be", dino EAJk, "errentagaz lotutako erizpideari lekua egin ez". Gogoratu dabe, baina, gizar-te sareagaz lotuta, hobariok laguntza lez bideratzearen alde dagozela.

Osotasunerako bat — Talde Mistoarena — eta 39 zuzenketa partzial — PPre 19, PSE-EEren 11 eta Aralarren 9 — izan ditue EAJ, PSE-EE eta Aralarren aldeko botoekin onartutako 2010erako ordenantza fiskalek; kontra egin eben

PPk eta Talde Mistoak, eta abstenitu egin zen EB-Berdeak.

Talde Mistoak zerga eta tasak aurrekontuagaz eztabaidatu behar direla berretsi dau: "Diru-sarrerak eta gastuak batera kudeatu behar dira, eta Udalaren eskumenetik kanpora geratu arren, krisi egoera hau une egokia izan leiteke bes-

te politika fiskal bat eskatzeko. Gitxiengo daukien aldeko neurriak ezin leitekez krisi egoerara mugatu". Tasak igon barik arlo batzuetan diru-irteerak txikitzea badagoela be badinoo; adibidez, liberazioak kenduz.

"Gitxiengo" eskatuz

PPk "herritarren zama ekonomikoa arintzeko" zerga eta tasak izoztu ez eze hobariak behar direla dino. PSE-EEK "ardura politikoagaitik" egin dauela alde, baina kontsentsuetarako "gitxiengo bat" eskatu dau. EAJren gestino "txarra" berretsi eta ordenantzak "zorrotasunez eta ekitatez" betetzeko eskatu dabe: "Ez da ezer kobratu 20 bat terraza edo kutxazainek hartutako espazio publikoagaitik"; euron 7 zuzenketa jaso ditue.

Ibilgailuen gaineko tasan CO2 isurketen arabera zergatzeko Aldundira gutuna bidaltzea onartu da, eta herritarrei hobarien barri emotea, Aralarren eskariz. ■ A.B.

Talde Mistoaren osotasuneko zuzenketa bat eta 39 partzial izan dira; PPre 19, PSE-EEren 11 eta Aralarren 9

Zaborra eta estolderia, TAOa eta ibilgailua biltegitara eroatea garestituko dira 2010eko ordenantzetan

1.500 lagunetik gora batu zituen Guztion Kultur Arteko VIII. Topaketak

Harresiak Apurtuz etorkinei laguntzeko GKEen Euskadiko koordinakundeak eratuta, 1.500 lagunetik gora batu zituen folklore eta aldarriz betetako Guztion Kultur Arteko VIII. Topaketak. *Mundubereko auzokideak* lelopean hainbat elkarte parte hartu eben: Durangoko Caritas, Kriskitin, M'Longo, Argoni Vasco, La Paz y El Amor Durangaldeko Ghanako elkartea eta Bolibiako Inti Rraimi, Japoo, Alnour, La Mano Amiga eta Axura elkarre islamikoak. Jaurlaritzako, Aldundiko eta Udaleko ordezkariak be izan ziren.



K. Aginako



Gremioendako txartela sortuko dabe, besteak beste. K. Aginako

Ez dabe onartu gremioen txartela merkatariei emotea

+Dendak-ek TAOari egindako alegazioa zen

Trafikoaren eta aparkamenduen ordenamenduak (TAO) gremioentzat eta etxez etxeko laguntzan dihardueen osasun langileendako txartel berezia jasotzea behin betiko onartu dau udalbatzarrak. Baita "koherentzia emoteko" gune laranja batzuk urdintzea eta minusbaliatu txarteldunek edozein lekutan aparkatzeko aukera be. +Dendak elkarteak aurkeztutako zuzenketa, gremioen txartela merkatariei be zabaltzeko proposamenak, ez dau aurrera egin.

Behin betiko onartu ditue TAOan jaso beharreko aldaketak, udalbatzarrean

EB-Berdeek, PPK, PSE-EEK eta EAJk egin dabe alde. Gremioen txartelagaz egoera "hobetuko" dela dinoe popularrek, eta sozialistek "gitxiengo akordioa" dela.

Martxan den mugikortasun planagaz sortu leitekezen arazoak konpontzea itxaroten dau PSE-EEK. Jasotako aldatetekin ordenamendua "hobetu" egin dela nabarmendu dabe jeltzaleek be.

Beste eredu baten beharra

Kontra egin dau Talde Mistoak, neurri horren "filosofia kontra" dagoelako. TAO eredu horrek "arazoa konpondu barik mugitu" egin dauela dinoe, eta beste eredu bat behar dela: "Horrek ez dau esan gura zabaldu behar denik".

Landako Erakustazokaren (LESA) azpiko aparkalekua TAO "malgu" bihurtzeko Udalaren konpromisoa gogoratuz abstenitu egin da Aralar. Gremioen txartela arautu behar dela be uste dabe: "Trabak sortuz gero, txartela beste sektoreetara zabalduz eta ez aldrebes". 2010erako ordenantza fiskaletan gremioen txartelaren prezioa be jaso dabe: urtean 120 euro. ■ A.B.

Zabaldu dabe JAEDen erakustokia

Gabonak badatozen erakusle be baden erakustoki solidarioa zabaldu dau, dagoeneko, Andra Mariko elizpean premiarik larrienak ditueenei laguntzen deuten JAEDek. Gehien behar daben Durango eta Iurretako familiak laguntzeko diru-iturri nagusia daukien zozketa horretan, Errege Eguna bitartean salduko ditue batutako sariak gordetzen ditueen txartelak, 1,25 euroan.

Durango eta Iurretako premia larrieneko familiak laguntzeko diru-iturri nagusi dau JAEDek zozketa

Citroën C3a sari nagusi

Ohi den moduan, makina bat sari lortu ditu JAEDek aruten be zotz egiteko. Horreen artean dago sari nagusia den Citroën C3 autoa, baina, baita hainbat bidai zein garbitzeko tresna be. Telebista, ordenagailua eta bizikleta be lortzeko aukera izango dabe txartelen bat erostera hurreratuko diren herritarrek. ■ A.B.

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

gremioen koordinazioa
urutiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadino)

AZKARGI GARBIKETAK
Bulego eta Industria mantentimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar
Goietan, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 94 682 09 91

ATXONDO

Ikur frankistak kentzea eskatu dabe mozino bategaz

Gobernu Taldearen botoekin onartu dabe plenora aurkeztutako idatzia



Falangearen uztarrria eta geziak agertzen ditue hainbat etxebizitzatan dagozen plakek.

Goiko argazkian ageri dena lako sinbolo frankistak oraindino herriko hainbat etxebizitzatako ataritan dagozela eta, "udalerrian dagozen ikur frankista guztiak ahalik eta bizkorren kentzea eta herritarrek halako sinboloak non dagozen Udalarri jakinaraztea" jasotzen dauen Onintze Oleaga zinegotziak aurkeztutako idatziagaz bat egin dau asteon Gobernu Taldeak. Cobos alkatearen

berbatan, "aspaldi egin beharreko gauza zen, sinplea, baina oso sinbolikoa be badena".

Aurkeztutako idatzian aitzaitzen den edukia baino, berau aurrera eroateko "moduagaz" ez

Cobos: "Aspaldi eginda behar eban gauza sinple baina oso sinbolikoa da herriko ikur frankistak kentzea"

datozela bat azaldu eta kontra bozkatu eben jeltzaleek: Igartza zinegotzi jeltzalearen esanetan, "modu zibilizatuagoan egin behar litzake". Proposatzen dena jabetza pribatu batean Udalaren esku sartzea litzakeela dinoe. "Jente askok jasan eban eta 40 urte iraun eban diktadura baten sinbolo iraingarriak dira plaka horreek", erantzun eta mozinoaren alde egin dau Gobernu Taldeak. ■ I.E.

Autobusaren zain egoteko aterpea nork eraikiko

Otsailetik, autobus geltokian markesina egiteko eskatzen dabilzela salatu dau Gobernu Taldeak

Negua, haizea eta euria gerturatu ahala, ia egunero, Udaletxean autobus geltokiko markesina noiz ipiniko daben galdetzen dauen herritarren bat hartzen dabela azaldu deusku Cobos alkateak. Urtebete da autobus geltokia dagoela, eta "otsailetik Aldundiari markesina falta dela gogorarazten jardun

Ez aurten, ez 2010ean, Aldundiak ez dauela markesinarik egingo erantzun ei deutsee Udalaren eskariei

dogu, eta orain arte ez dogu erantzunik jaso", azpimarratu dau. Orain gitxi Aldunditik jasotako erantzuna salatu gura izan dau alkateak: "Ez aurten ez 2010ean be, Aldundiak ez ei dau markesinarik ipintzea aurreikusten". Erabiltzaileak beste urtebete autobusaren zain egoteko aterperik barik ez izateko, Udalak egin beharko dauela markesina salatu dau Cobos.

Garraio publikoaren erabiltzaileen eta Gobernu Taldearen salaketaren adierazpen sinbolikoa azaroaren 14anegin eben "markesinaren inaugurazioa" izan zen. "Erakunde publikoen itzikeria" salatu eben. ■ I.E.

OTXANDIO

Tasak eta zergak igo ditue diru-sarreretan oreka bilatu guran

Otxandion presino fiskala EAEn, Bizkaian eta Durangaldean baino apalagoa dela azaldu dabe

Gobernu Taldeak eta EAJk aho batez onartu zitueen 2010eko ordenatza fiskalak azken udalbatzarrean. Oro har, tasak eta zergak igotzea adostu dabe. Krisi sasoi honetan, ordenatza fiskalak izoztea "neurri herrikoa" den arren, "erantzukizunez" jokatu behar dabela adierazo eban Aritz Otxandiano alkateak. Arrazoi nagusi bitan oinarritu zitueen igoerak: "Udalkutxatik 110.000 euro gitxiago jasoko doguz. Horrez gainera, Durangaldeagaz, Bizkaia gaza eta Euskal Autonomia Erkidegoagaz konparatuta, presino fiskala apalagoa da. Horreen batez bestekoan egon-

go bagina, 70.000 euro gehiago jasoko geunkez", argudiatu eban.

Trakzino mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga zaldi fiskalen kopuruaren arabera igo dabe: zenbat eta zaldi gehiago, ehuneko handiagoa. EAJk kamioien eta traktoreen kasuan ez igotzeko eskatu eban "baserri mundua jausita" dagoelako. Gobernu Taldea ados agertu zen eskaeragaz. Estolderia eta ur kontsumoaren gainekoaren minimoa euro bat igon dabe urtean, eta altuena, barriz, %4, "iraunkortasun irizpideak" jarraituz.

Zabor biltzetaren, frontoiaren erabilpenaren eta ondasun higiezinaren gaineko zergak bere horretan itzi ditue. Igerilekuaren kasuan, herriari erroldatuta ez dagozen igarriko dabe, batez be, igoera: 26,5 eurotik 30era (5-15 urte artekoak), 0 eta 39tik 45era handik gorakoak. ■ J.D.

A.Otxandiano: "Erantzukizunez jokatu behar dogu; esaterako, Udalkutxatik 110.000 euro gitxiago jasoko doguz"

GARAI

Frontoiaren erabilpenerako tasak aldatuko ditue

Martitzeneko udalbatzarrean hartu eben erabakia; gainerakoak mantendu egingo ditue

Martitzen honetan udalbatzarra egin eben Garain, eta datorren urterako tasak izan zitueen berabagai. Guztiak bere horretan mantendu zitueen, frontoiaren erabileraren gainekoa izan ezik.

Gontzal Sarrigoitia alkateak azaldu deuskunetz, "aspaldian aldatu barik" egon da pilotalekuaren tasa, eta, gainera, herritarrek eta kanpokoek berdin ordaintzen eben: 7 euro. Horregaitik hartu dabe aldatzeko erabakia, aho batez, udalbatzarrean. Arau barriari jarraituz, herritarrek orduko 7 euro ordaintzen jarraituko

dabe frontoia erabiltzearen; kanpokoentzako 10 eurora igoko da. Kantxa, dutxa eta argia sartzen dira prezioaren barruan.

Bertso afaria

Bestalde, hilaren 28an bertso afaria izango da Otea-Loran elkarrean, Igor Elortza eta Miren Amurizagaz; Udaletxean emon behar da izena 24a baino lehen. ■ M.O.

Herritarrek orduko 7 euro ordaintzen jarraituko dabe; kanpokoek 10 euro

ORAIN DURANGON ERE BAI

1992 SANITAS AEGON

Osasuntek

KLINIKA ETA KIRURCIA OFTALMOLOGIKOA

Jauregui medikua **Etxeandia medikua**

- Kataraktaren kirurgia
- Eginkortasun-irritziaren irratizko tratamendua
- Leukokorria eta begi berria
- Okulistikoen kontrola
- Haur okulistikoa
- Otsiko kirurgia

Zumalakarregi kalea, 18 (Solairu artekoa) Durango • Tel.: 94 655 09 43

1992 SANITAS AEGON

A Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurritza egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

1992 SANITAS AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea

48200 DURANGO

Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología

Podólogo

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02



Dekorazio integrala. Giro freskoak



Espazioak sortzen ditugu, monotonia hautsiz, elementu ez ohikoak erabiliz horretarako, eta argia eta kolorea ere bai, paper garrantzitsua jokatzen dutenak



Estilo ugaritasuna altzarietan zein osagarrietan, dekorazio garai-kidearen funtsezko gakoetara gerturatzeko. Ehundura metalizatua, kolore iradokitzalleak, berrikuntza kromatiko izugarria, benetako larruen imitazioa, etab.



Armairuak eta jantzigelak: Gure armairua harmonia perfektuan gordetzeko eskura dugun espazioa optimizatu behar dugu, kasu bakoitzerako banaketa egokia planifikatuz.



Mikeldi 6 • 48200 Durango • Tel.: 94 681 38 95

ZALDIBAR

'Euskara kirolean' kanpaina aurkeztu dabe Udaletxean

'Euskararen gurpilean sartu' lemagaz, euskara eta txirrindularitza lotzen ditu aurten egitarauak

Miguel Madariaga Euskadi txirrindularitza fundazio-ko lehendakaria, Koikili Lertxundi Itzarri enpresako zuzendaria eta Ahtleticeko jokalaria, Nerea Garitagoitia euskara zinegotzia eta Idoia Mendiolagarai alkatea izan ziren joan zen zapatuan, Udaletxean, euskara eta kirola uztartzea bultzatzen dauen Euskara Astea aurkezten.

Txirrindularitza izango da aurten ardatz, eta bere inguruan, azaroaren 23an, 24an, 25ean eta 26an izango dira ekintzak. *Euskararen gurpilean sartu* lema daraman programazioan lehenengo hitzordua Amets Txurruzagaz izango dabe: eskolan euskarazko ulermena, idazkera eta irakurmena lantzeko saio teoriko-praktikoa.

Azaroaren 24an, barriz, Ruben Perez zaldibartarra be tartean izan-

go den Euskaltel taldeko hiru taldekidegatz ginkana baten bitartez entrenamendua izango da eskolako pilotalekuan, 18:30ean. Txirrindularitzaren inguruko hirugarren saioa be eskolakoei zuzendurikoa izango da.

Azaroaren 23, 24, 25 eta 26an izango dira Euskal Astearen barruko ekitaldiak

Euskara eta kirola -kasu honetan, txirrindularitza- uztartu gura ditue

Amets Txurruka izango da hirugarren saioa be zuzenduko dauena. Euskara Astearen barruko azken ekitaldia, barriz, azaroa-



Zapatu goizean egin eben Euskal Astearen aurkezpena udaletxean. I.Gorriti

ren 26rako antolatu dabena da, eta Pedro Mari Goikoetxea telebista-ko aurkezlea, Andoni Arce fisioterapeura, Gorka Gerrikagoitia entrenatzailea eta Josu Larrazabal prestatzaile fisikoa elkartuko dira Udaletxeko bilkura aretoan.

Zapatuko aurkezpenean emon eben Udalak Itzarri enpresagaz sinatu dauen akordioaren barri be

Euskal Astearen rogramazioaren aurkezpen ekitaldian jakinarazi ebenez, gainera, Koikili Lertxundi otxandiarrek zuzentzen dauen Itzarri aholkularitza enpresak eta Zaldibarko Udalak akordioa sinatu dabe. ■ I.E.

BERRIZ

Etxeren kontzertuagaz hasiko dabe euskarari eskainiriko astea

Zuzenekoak, solasaldiak... Egitarau zabalaz osatu dabe Euskararen Astea

Euskararen Nazioarteko Eguna oinarri hartuta, hainbat ekitaldi antolatu dau Udalak, bihar hasi eta abenduaren 4a bitartean.

Bihar 22:00etan, Inaki Etxezarrraga "Etxe"-kkaleratu barri dauen *Heldu eskutik* diskoa aurkeztuko dau, Kultur Etxean; Gaztetxean azken kontzertua eskaini ebanatik urtebete bete da oraintsu.

Hilaren 27an, 17:00etan, seme-alaben eta gurasoen arteko euskararen erabilera irudikatuko dau Olakueta plazako muralak.

Zazpi astoren gainean ikuskin-zunak bertsoa, trikitixa eta antzerkia batuko ditu, hilaren 28an, 19:00etan, plazan. Ondoren, kan-

tu afaria egingo dabe Jon Enbeitagaz Pedro Juan jatetxean.

Hurrengo egunean, domekan, *Sukalde kontuak* euskarazko filma emongo dabe Kultur Etxean, 19:00etan hasita. Aizpea Goenaga zuzendaria be han egongo da.

Abenduaren 1ean euskararen erabilera buruz egindako neurketako datuak eta ondorioak jakitera emongo ditue Kultur Etxean, 19:30etik aurrera. Abenduaren 2an, Mikel Markezen kantuikastaroa hasiko da. Hilaren 27ra arte emon leiteke izena, Udaleko Euskara Sailean.

Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, Berrizko

ikastetxeko gazteak Aitor Agirre Betagarriko musikariagaz eta Pablo Berasaluze pilotariagaz solastuko dira, besteak beste. Helduak be badaukie zer ikusi: Xabier Amurizak eta Jon Maiak XX. mendeko Euskal Herria bertsoan errepasatuko dabe, Kultur Etxean. Amaitzeko, toki berean, Korrontzi folk taldea zuzenean ariko da abenduaren 4an. ■ J.D.

Xabier Amurizak eta Jon Maiak XX. mendeko gertakizun garrantzitsuenak bertsoekin errepasatuko ditue

ABADIÑO

Berbalagun egitasmoa laster abiatzea helburu

Abenduan egingo ditue proiektua herritarrei zabaltzeko aurkezpenak herriko kultur etxeetan

Datorren asterako, azaroaren 24rako eta 25erako, herriko talde kultural eta politikoetako ordezkariak gonbidatu ditue Abadiño-ko AEK eta Udalaren Euskara Sailearen artean martxan ipiniko daben Berbalagun egitasmoaren aurkezpena. Azaroaren 24an Errotan, eta 25ean Txanporta kultur etxeetan izango dira hurrenez hurren hitzordu horiek.

Herriko euskaldun zaharrak eta berriak elkarregaz euskaraz aritzea oinarri dauen egitasmoaren aurkezpen zabalaz, barriz, abenduan egingo dabela azaldu dabe antolatzaileek. Euskaltegian euskara ikasten dabilzenentzat

ikasitakoa praktikara eramateko modua, eta euskara jakin baina gura beste erabiltzen ez daben euskaldunentzat, ikasten dabilzenak laguntzeko modua be badela Berbalagun azalduko deutsee herritarrei aurkezpena.

Egitasmoan parte hartzeko, herriko kultur etxe bietan eta 639400786 zein 946817349 telefonoetan emon leiteke izena. ■ I.E.

Errota eta Txanporta kultur etxeetan zein 639400789 edo 946817949 telefonoetan emon leiteke izena

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

HONDA
STIHL
SAME
BCS
CARON
VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03



DIURRETA

Abadetxean sartu zirela hamar urte direla ospatuko dabe

Hainbat ekitaldiz osatutako egitaraua antolatu dau egunotarako lurretako Gazte Asanbladak

Lurretako gazte mugimendua, "herriko gazte guztion bilgune" izango zena, sortu zela 11 urte dira. Hamar, Abadetxean sartu zirela: "Herritar guztion bilgunea, merezitako gune aske eta autogestionatua". 2006an erre zen arte jardun eban han Gazte Asanbladak. Gero okupatu zituen txapa-lantegia izandakoa eta frontoi albo-ko txabola. Baina, bai batetik bai bestetik, Ertzaintzak kaleratu egin zituen; baita okupatutako azken lokaletik be, Udalarena berau.

Aita San Migel plazan eraisteko zen eraikinean sartzea izan zen aurrera irten ez eban azken ahalgina. Dena dela, "hainbat gorabehera bizi arren Abadetxeko kon-dairak aurrera darrai", gazteen berbatan, eta 10. urteurrena ospatzeko egitaraua osatu dabe. Gaztetxe karpa jarriko dabe, gaur 16:00etan,

Dantzarin, eta, 19:30ean, *Herri bat Gaztetxe bat* lelopean kontzentrazioa deitu dabe Askondon. *Honolulu, leku bat* antzezlan hasiko da 20:00etan eta Aduniagaz folk kontzertua, 22:00etan.

Bihar, txorizo eta sagardoa dastatuz hasiko da eguna, 12:00etan; 13:00etarako, Zaparrada batukada taldeak girotutako poteoa eratu dabe, eta, 15:00etarako, bertso bazkaria, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Xabier Silveiragaz; Gure Barik bertso eskolakoek be jardungo dabe. Kontzertua hasiko da, 21:00etan, Sermonds eta P.K.U. taldeekin, eta 23:30ean erro-meria Trikihots taldeagaz. ■ A.B.

Hainbat ekitaldi batuko dituen Gaztetxe karpa jarriko dabe, gaur, 16:00etan, Dantzarin



Errepidearen alde biak lotu gura ditue Arriandín, autobus geltokiaren parean. A.B.

Oinezkoen bidea egingo dabe N-634aren azpitik Arriandín

la 900.000 euroko aurrekontua izango dauen egitasmoa onartu barri dabe

N-634 errepide nagusiaren azpitik oinezkoendako bidea egingo dau Udalak Arriandín. Oinezkoendako segurtasuna "hobetu-ko" dauen pasabidea Zugastietarako bidegurutzean egingo dabe, autobus geltokiaren parean, eta ia 900.000 euroko inbertsinoa eskatuko dau. Halan be, Iñaki Totorikaguena alkateak aurreratatu dauenez, epe ertainean, hurrengo autobus geltokiaren parean be egin gura dabe errepidearen alde biak lotuko dituen bigarren pasabidea.

Totorikaguena berbatan, "hutsune garrantzitsua" da: "Aspaldi dihardugu Aldundiagaz beharrean irtenbide bat topa-

Udalak helarazotako aukeren artean hautatu dau Aldundiak udalbatzarrak onartu barri dauen egitasmo hori

Oinezkoen segurtasuna "hobetu-ko" dauen pasabiderako dirua 2010eko aurrekontuan lotu gura dabe

tzeko". Udalak helarazotako aukeren artean Aldundiak —foru-errepidean eragiten dau eta— hautatu dau bat, eta egitasmo horixe onartu barri dau udalbatzarrak. "Preminazko" obra deritzoe pasabide horri.

Erakusketa publikoan ipiniko dabe egitasmoa, eta gero etorriko da behin betiko onarpena. Ondoren, 2010eko udal aurrekontuan jaso eta lanak hasteko aukerak aztertuko ditue udal taldeek: "Egitasmoa badago behintzat, N-634a konplikatua da eta. Aurrera egiteko Aldundiagaz bateratu beharra zegoen", dino alkateak. Aldunditik zein Jaurlaritzatik jaso leitekezen laguntzak be aztertuko ditue. ■ A.B.

DI MALLABIA

Udalak ordenantza fiskalak izoztu ditu

Auzoetako zaborrak zentralizatu, gastua murriztea lortu dabela dino Aitor Loiola alkateak

Udal ordezkariak Kontu Batzordeko batzarra egin dabe. Bilerahorretan, datorren urteko zergak eta tasak lehenago zegoen legez iztea aho batez erabaki dabe. Beraz, urari, zaborrari eta estolderiari jagokezen zergak ez dabe igoerarik izango 2010ean.

Aitor Loiola: "Krisi sasoiaren ez deutsegu Mallabiko herritarrei zerga eta tasa gehiago ordainarazi gura"

Aitor Loiola alkateak argitu gura izan dauenez, zerga eta tasak izoztea ez da neurri "populista" izan. Auzoetako zaborrak zentralizatu, kostuak txikitzea lortu dabe, eta horren ondorioz posible izan dabe, aurtun behintzat, tasak bere horretan iztea. "Krisi sasoiaren herritarrei ez deutsegu gehiago ordainarazi gura", azaldu deusku alkateak. Areitio eta Anbre inguruetako zaborra zentralizatzeko eragin dau, batez be, auzo-

tako bilketa kostuaren jaitsiera. Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergak, Ekonomia Jardueren Gaineko Zergak eta Ibilgailuen Gaineko Zergak be ez dabe igoerarik izango. ■ P.M.

Kontzertua eta Gaztainerre zapatuan

Ohitura den legez, azaroaren 21ean Jasokunde abesbatzak kontzertua eskainiko dau, Mallabiko eliz parrokiaren. Jasokunde abesbatzagaz batera, Mendibil abesbatzak, Igone Amesti sopranoak eta herriko trikitilariak kantatuko dabe.

Kontzertua amaitu eta gero, herriko plazan, Orraitio euskara elkarteak antolatuta, gaztainerreak jateko aukera izango da bertara hurbiltzen diren lagun denentzat. ■ P.M.

DI ELORRIO

Zortzi auzotako bideetan konponketak egingo ditue

Bideetako tramua konkretuak hobetu ditue

Auzoetako kezak eta gabeziak jasotzeko auzo ordezkariak batu ohi da Udala. Batzar horreetako batean hainbat auzo-bideetako tramua konpontzeko eskatu eban, arriskutsuak izan daitezkeelako edo trafikoa gaxten dabelako. Eskaera hori betez, Udalak 100.000

euro bideratu ditu zeregin horretara. Asmoa lanak aurtun esleitzea da, eta beranduen be urtarrilean hastea.

Zortzi auzotako bideak konponduko ditue: Aldape, Gastañeta, Mendraka, Zenita, Lekeriketa, Leiz, Miota eta Berriozaletara

doazen bideak, hain zuzen be. Toki bakotxean bidea hobetzeko behar izan konkretuak dagoz. Esaterako, Aldapen bazter-babesa ipiniko dabe, tramua batean bidetik irteteko arriskua ekiditeko. Gastañetan areak hobetu ditue; Mendrakan harri-lubeta ipiniko dabe, eta Zenitarako bideko gune bat zabalduko dabe. ■ J.D.

100.000 euro bideratu ditue zeregin horretara; helburua lanak urtarrilean hastea da

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin ardoak

iñaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

IZURTZA

Aho batez onartu arren, luze eztabaidatutako aurrekontua

Joan zen barikuko udalbatzarrean onartu eben 2010erako aurrekontua



Hiri Antolamendurako Plana; 2010erako egiteko nagusia.

Udaleko zinegotzi guztien aldeko botoa jaso eban 2010erako aurrekontu proposamenak, joan zen barikuan egin eben udalbatzarrean: udalbatzarreko alderdi bien arteko eztabaida luzea izan zen arren, aho batez onartu zituen.

Txabola konpontzera 25.000 euro bideratzea gehiegizko iruditzen jakela azpimarratu eben zinegotzi jeltzaleek

Babeseko etxebizitzak kokalekua eztabaidagai

Galdera eta eskarrietan atera eben jeltzaleek gaia

Arkotxa inguruan babeseko etxebizitzak proiektua garatu ahal izateko lursaila urak hartzeko arriskuari aurre egiteko zer aukera lego-kezen Eusko Jaurlaritzari galdetzeko eskatu deutso Oskar Zarrabeitia jeltzaleak Gobernu Taldeari; Gobernu Taldeak "Durango eta Iurreta moduko herrietan topatu ditueen soluzinoen inguruko informazioa lortu" daiala.

Arkotxako UE7 lursailean -Eusko Jaurlaritzak urak hartzeko dagoen arriskuagaitik eraikuntzarako baliatzea galarazi dauen lursailean- babeseko etxebizitzak garatzeko zer aukera egon leitekezen berraztertu daiala Gobernu Taldeak eskatu dau EAJk.

Gobernu Taldeko Iker Ballarin zinegotziak erantzun eban ez dabela ulertzen "babeseko etxebizitzak lursail horretan egiteko hainbesteko interesa" zergaitik daukien jeltzaleek. ■ I.E.

Babeseko etxebizitzak Arkotxan eraikitzeak aukera aztertu daiala eskatu deutse jeltzaleek Gobernu Taldeari

UE7 lursailean etxebizitzak eraikitzeak aukerarik legoken informatzeko eskatu dau EAJk

Osotara, 699.000 euroko kopurua biltzen dauen aurrekontuaren alde bozkatu arren, aurrekontuko gai zehatz biri buruzko euren desadostasuna adierazi eben jeltzaleek, barikuko udalbatzarrean. Zarrabeitia bozeroaleak azaldu ebanez, aurrekontuko partida zehatz bigaz ez dagoz ados. Batetik, "txabolaren konponketa 25.000 euro bideratzea", egoera ekonomikoa eta herriak daukan inbertsino beharra kontuan hartuta, ez ei jake jeltzaleei apropos iruditzen. Gobernu Taldeak, bere partetik, Mendigaineko txabola herriaren ondarea dela-eta, konpondu ondoren herritarrek baliatzeko moduak bilatzeko asmoa agertu eban. Bestetik, efizientzia energetikoari jagokon 18.000 euroko inbertsinoaren inguruko informazioari ez daukiela nabarmendu eben jeltzaleek udalbatzarrean.

Inbertsino guztiaren %40 Hiri Antolamendurako Plan Orokorra diseinatzeko

Aho batez onartutako datoren urterako aurrekontuak jasotzen dauen inbertsino nagusia, baina, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra diseinatzeko prozesura bideratzea aurreikusten dabena da: 89.000 euro. Osotara, 212.000 euroko inbertsinoak jasotzen ditu aurrekontuak. ■ I.E.

MAÑARIA

Biribilgunea egingo dabe harrobi artean

Hijos de León Amantegi eta Hormigones y Minas enprekin hitzarmena egitea onartu dau, azaroko udalbatzarrean, Gobernu Taldeak. Hitzarmen horren helburua, aitatutako herriko enpresa bi horregaz elkarlanean, Izurtzatik datorren bidean -harrobi bien artean- biribilgunea eraikitzea da.

Udal arduradunek azaldu deuskuenez, biribilgunea eraikitze lursaila laga eta berau eraikitze beharrezko inbertsinoaren parte bat euren gain hartuko dabe enpresa biek. Proiektua garatzeko Bizkaiko Aldundiagaz be akordioa lortzeko asmoa daukala jakinarazi dau Udalak. ■ I.E.

DURANGO

Alberdi harategiko odolosteak nagusi Munduko Txapelketan

Durangoko Alberdi harategiak irabazi dau Bizkaiko Odolosten Munduko XV. Txapelketa. Café Iruña eta La Granja establezimenduek lagunduta, Txarriduna txerri akademiak eta Tripas y Especies Fco. Javier Zuazagak antolatutako txapelketa horretan 98 odoloste-egilek parte hartu dabe oraingo honetan, eta denen artean Durangoko harategiak *Odolostetan Gailen-2009* saria lortu dau. Bizkaiko 53 parte-hartzaile aurkeztu dira aurten go lehiaketan; Gipuzkoako 35, Arabako bost eta Kantabriako hiru.



ELORRIO

'Euskal Estatuaren sorrera eta zanpaketa' berbagai

Euskal Estatuaren sorrera eta zanpaketa izenburupean berbaldi sorta eratu dau Udalak. Azaroa eta abendua bitartean garatuko den ekimena da eta hurrengo hitzordua azaroren 25erako egin dabe: *1200eko konkista. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa* berbaldia eskainiko dau Angel Rekaldek, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Abenduaren 2rako antolatu dabe hurrengo saioa, ordu eta leku berean. *1512ko Nafarroako konkista* izango dau orduan Gaizka Aranguren. Azaroren 18an izan zen lehengo saioa: *Nafarroako erresumaren sorrera* (Beñi Agirre).

ABADIÑO

Gazte Eguna antolatu dabe

Abadiñoako gazte independentistek Gazte Eguna antolatu dabe, zaturako. Egun osora zabalduetako egitaraua antolatu dabe, berbaldia, bazkaria eta Durangaldeko musika taldeen maratoia, besteak beste. *30 urte borroka eta antolakuntza* izenburupean antolatutako berbaldiagaz hasiko dabe eguna, 11:30ean, eta, ondoren, trikipoteoa izango dabe.

Bazkaltzeko elkartuko dira 14:30ean —txartelak ohiko lekuetan eskuratu leitezke sei euroan—, eta, 17:00etan, Durangaldeko musika taldeen maratoia hasiko da. Honako taldeek parte hartuko dabe: Pixontxis, Daltondarrak, Stand By, Gazte Itzala, Namek Planet eta Disorders. Tartean, 19:00etan kalejira eta ekitaldia izango dira, 22:00etan, barriro be, maratoiri heltzeko. Dena dela, gaurko be antolatu dabe ekitaldirik: Kuntur taldeak kontzertua eskainiko dau, 22:00etan.

BERRIZ

Pertsona helduen artean be kirola sustatzeko berbaldia antolatu dabe

Bizkaiko Foru Aldundiaren *Kirola, osasunaren bidea* izeneko kanpainaren baitan berbaldia antolatu dau Udalak herriko pertsona edadetuei zuzenduta. Ekimenak pertsona guztien artean kirola sustatzea dau helburu, udal ordezkariak azalduetakoaren arabera. Horretara, batez be, kirola egiteko edo jarduera horretan hasteko aholku praktikoak emongo ditue, azaroren 24an, 10:00etan, Kultur Etxean eskainiko daben berbaldian. Bertan parte hartuko dabe, hizlari, Kepa Lizarraga medikuak eta Patxi Perez kirol teknikariak.

BERBAZ >

“Ondorengoari, berba egiteko eta ateak inori ez ixteko gomendatuko neuskio”

Sabin Bilbao EB-Berdean alderdiko zinegotziak agur esan deitso Durangoko udal politikagintzari

Durangoko zinegotzi legez sei urte eta erdi emon eta gero, kargua iztea erabaki dau. Sabin Bilbaok legegintzaldi bi ezagutu ditu. Egindako lanagaz pozik dagoela aitortu deusku. EB-Berdeak alderdiak Udalean ordezkari bakarra daukan arren, erabakiak hartzeko hainbat gaitan bere botoa erabakiorra izan da. Ordezkoa nor izan leiten, baina, ez deusku aurreratu.

Zinegotzi kargua itzi zenduen joan zen asteko udalbatzarrean...

Pleno haretan eskerrak emon neutsa zen komunikabide, teknikari, Udaltxeko langile eta lagunei; baita Durangoko herriari be. Denpora honetan jente asko ezagutzeko aukera izan dot. Urte oso onak izan dira.

Politikoki, bi legegintzaldi honeen zer balorazino egingo zeunke?

Balorazino positiboa. Kontuan izan behar da alderdiko zinegotzi bakarra izan nazela, 21en artean. Proposamen batzuk aurrera irten dira. San Rokeko haurtzaindegia egitea oso garrantzitsua izan da. Landakon beste haurtzaindegi bat egiteko akordioa heldu gara. Inmigrazio teknikaria eta bardintasun teknikaria be neuk proposatu nituen.

Saharar kanpamenduetara be bidaiatu dozu.

Saharar herria bihotzean daroat. Errefuxiatu kanpamenduetara joatea, han zelan bizi diren ezagutzeko, eta zinegotzi legez laguntzea, lorpen handiena izan da. Sei urteotako esperientzia garrantzitsuena izan da.

Zer gelditu da egiteko?


Landakoko haurtzaindegia amaitzea. Tabira eta Sabeco arteko lotunea amaitzea be herriarendako garrantzitsua da. Orain, Juan de Iciar inguruan trafiko handia izaten dogu, eta trafikoa herrigunetik ateratzeko modua da. Uribarriko egoitza barriztu eta gizar-te-ekintzako ekimenak bertan lotzea beharrezkoa dela deritzot.

Legegintzaldi bi ezagutu dozuz. Alderik nabaritu dozu?

Lehenengo lau urteetan Gobernu Taldeak 10 zinegotzi zituen, eta akordio batera heltzea errazagoa zen. Orain zinegotzi gehiago behar ditue aurrekontuak aurrera ateratzeko. Urte bi daroaguz aurrekontu barik, beraz, hortik atera kontuak.

Hurrengo aurrekontuak?

Urte biotan aurrentuak ia-ia onartu izan dira, baina Gasteizko parlamen-



Kepa Aginako

“Gauzak talde moduan eginez gero, Durangorengan pentsatu barik, aurrekonturik ez da onartuko”

turako hauteskundeak etorri ziren eta eragina izan eben. Orain gatx ikusten dot hurrengo urtean onartzea. Bakotzak talde moduan egiten baditu gauzak, Durangorengan orokorrean pentsatu barik, ez dira aurrera

“Zinegotzi legez, saharar herriari laguntzea izan da lorpen handiena. Bidaia ha bihotzean daroat”

aterako. Halan ez dago akordioa hel- tzerik.

Zelan hartu dozu erabaki hau?

Bilboko CCOOko exekutiban dihardut lanean. Bi beharrak ezin ditut bate-

Sabin Bilbao •

- Sei urte eta erdi Durangoko zinegotzi
- Orain, CCOOn

ratu, beraz, zinegotzi kargua iztea erabaki dot.

Ordezkorik?

Kritikatzeko aurretik jartzen gara, baina lan egiteko ez hainbeste. Bagabilz baten bat topetan, eta badaukagu hautagaien bat, baina oraindino ezin geinke izenik esan.

Hasibarriari beteranoak zer gomendio emongo deitso?

Urte eta erdi izango dau. Aurrekontuak aurrera ateratzeko. Zinegotzi bakarra daukagu, baina Durangon badago zereginik. Proposamenak egiterakoan herrian zenbat diru dagoen eta zer egoeratan gagozen kontuan izateko esango neuskio. Gomendio onena, denekin berba egiteko prest egon daitela eta ateak ez ixteko inori.

Sindikatuan erronka barri bati helduko deitso orain.

Beste modu batean lan egiteko aukera izango dot. Egoera gatxean gagozen arren, gogo handiagaz hartu dot lan barria. Giro ona dago lankideen artean. Konpromisoa hartu dot eta lan egiteko gogo daukat.

Krisi sasoian, sindikatuak lanean.

Federazioa bultzatu beharra dago. Egoera onean jente pilo dago prest lan egiteko, baina zailtasunetan be egon beharra dago, gauzak denok aurrera ateratzeko. ■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Ikuspegi kontrajarriak Transformados Ibaizabalen

Enpresak ukatutako "manipulazioa" salatu dau CCOOk hauteskundeetan

Transformados Ibaizabal enpresak hauteskunde sindikalak "manipulatu" dituela salatu dau CCOOk. Sindikatu horren hautagaia "bidegabeki" kaleratu dabela dio, "arrazoirik emon barik". Enpresako zuzendaritzak, aldiz, "errepresino sindikal isiltzeko" hauteskunde-mahaiak langile ohi horren hautagaitza onartzea erabaki ebala dino, eta beharginek erabaki dabela nork ordezkatu. UGTk aurkeztutako zerrendak irabazi dau, CCOOk dinonez, "gerentearen senide batek gidatutako zerrendak".

CCOOK aldeko lau boto eta kontrako 10 jaso ei zituen, zuzendaritzak ohar baten azaldu lez.

CCOOn arabera, "kaleratzeaz gainera, hauteskunde prozesua indarkeriak eta zuzendaritzak aurkeztutako zerrenda babesteko presinoek markatu" dabe. Salatu dabe-

CCOO sindikatuak eta Transformados Ibaizabaleko zuzendaritzak "jazarpena" egotzi deusie elkarri

nez, "langileen lan baldintzak hobetzeko ildo errebindikatiboa erakusteagaitik bakarrik", ordez-kari sindikalekiko "jazarpena" eta "presino kanpainak" ohikoak dira.

Zuzendaritzak be "jazarpena" salatu dau: "Ez bakarrik gerentegazkoa; langileekikoa be bai. Euren zein gertuko senideen etxeetan pintadak eta paskinak agertu dira, faltsukeria salatuz". "Jazarpen" hori eta bestelako "ekintza bandalikoak" be salatu ditu enpresak Ertzaintzan. CCOOk salaketa aurkeztu dau epaileek kaleratzea "balio bako" deklaratzeko. ■ A.B



Transformados Ibaizabal enpresak ukatu egin dau hauteskundeak "manipulatu" izana. A.B.

25 urte ospatuko ditu +Dendak elkarteak

Animazio ekintzekin hasi ditue ospakizunak asteen

Durango, Abadiño eta Iurretan antolatutako animazio ekintzekin abiatu ditu, asteen, +Dendak merkatarik elkarteak 25. urteurreneko ospakizunak. Horren baitan, egunotan, globoflexian aditu den pailazo baten eskutik puxikekin egindako 1.500 irudi banatu ditu hiru herrietan.

Gaur banatuko ditue azken puxikak: Landakon eta Alde Zaharrean, hankapalu ikuskizunak giro-tuta, aurreko egunetan legez. Fanfarreak giro-tutako eguerdia izango da biharkoa: 13:00ak eta 15:00ak bitartean jardungo dau, Alde Zaharrean.

Gazttxoenak dira aurreneko ospakizun ekitaldiotako protagonistak, "belaunaldi barrien garrantzia" aitortzeko "keinu sinboliko" lez: "Komertziorik bako herri bat umerik bako herri bat bezain tristetia litzake-eta", dinoe.

"Indarrak batuz"

Halan be, 1984ko abuztuan sortutako elkarteak, abenduaren 9an ospatuko dau bere 25. Urteurren Gala. Komertzio txikia sustatzeko helburuagaz, "indarrak batzea" erabaki eben autonomo talde baten eskutik sortu zen +Dendak Durangon. Gaur egun, 180 bat

merkatarik dira bazkide; Durango-koak ez eze Iurreta, Abadiño eta Izurtzakoak. Jaialdi horretan, omenaldia eskainiko deutse elkarteak lehenengo pauso hareek emon zituenei.

Era berean, +Dendak-ek antolatutako II. Film Laburren Lehiaketako sariak emongo ditue, eta aurtengo kontakizun lehiaketako saridunak jakinarazteaz gainera, igaz aurkeztutako 12 kontakizun batzen dituen liburua be aurkeztuko dabe. Halan aurreratu gura izan dabe merkatarik elkarteko arduradunek. ■ A.B.

25. Urteurren Gala abenduaren 9an ospatuko dau +Dendak elkarteak, Plateruena kafe antzokian

UGT-Euskadi sindikatuaren autobusa, 24an

Enplegurako informazioa, orientazioa eta formazioa eskaini gura dauen autobusa jarriko dau Ezkurdin, azaroaren 24an, martitzenean, UGT-Euskadi sindikatuak. Halan jakin eragin dabe sindikatuko Durangaldeko arduradunek.

Durango Ezkurdi plazan egongo da, lau orduan, bertaratu den autobusa. Sindikatuak orientazio profesionalerako eta informazioa zabaltzeko abiatutako kanpainaren baitan eroango dabe.

Garapen profesionalerako

UGT-Euskadi sindikatuko ordez-kariak azaldu dabenez, 16:00etatik 20:00etara bitartean egongo da bertan, eta garapen profesionalerako formazio eskaintzaren barri emongo jako bertaratu denari. Baita enplegurako bestelako informazioa be, jakitera emon dabenez. ■ A.B

Ezkurdi plazan egongo da UGT-Euskadiren autobusa, 16:00etatik 20:00etara bitartean

CNTk hainbat jarduera antolatu ditu egunotarako

CNT sindikatuak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Horretara, *Podemos vivir sin capitalismo, la alternativa del decrecimiento* izenburuean berbaldia eskainiko dabe, azaroaren 26an, egunean. CNTk Durangon daukan egoitzan jarri dabe hitzordua, 19:30ean.

Berbaldia eratu dabe kapitalismoaren inguruan, azaroaren 26an, Durango egoitzan

Asteon dokumental bi eskaini ditue:

'Los Sin Tierra' eta 'Peaceable Kingdom'

Azaroaren 27an, barikuan, barriz, Ermuko Eskilarapeko Ate-neoan, kontzertua eskainiko dabe, 19:00etan, zenbait kantautorek, eta, 21:00etan, erreztaldi poetikoa hasiko da. Halan jakin eragin dabe sindikatukoek. Asteon bertan dokumental bi eskaini ditue: *Los Sin Tierra* eta *Peaceable Kingdom*. ■ A.B

■ kolaborazioa



Javier Meruelo CNT sindikatua

Ez dugu limosnarik nahi

Expansión ekonomiari buruzko egunkarian, izenburu hau agertu zen pasa den astean: "Kontratu alemaniarra 14.000 milioi euro kostatzen zaio Estatuari". Irakurketa soil bat egiten badugu, badirudi estatuari esker alemaniarrek bizirik jarraituko dutela. Baina nondik ateratzen du Estatuak diru hori? Ez al da gure zergetatik? Orduan, titularrak egokituz askoz hobeto geratuko zen honela: "Kontratu alemaniarra 14.000 milioi euro kostatzen zaie langileei". Baina, noski, *Expansión* ez da ONG bat, eta argi daukate euren egunkarian horrelako astakeriak ezin direla agertu. Horrelakoa da neoliberalismoaren lagunen jokoa. Baina gauza bat oso argi daukagu, ez gara ilargia eskatzen ari, gauza justuak baizik, Marcos azpikomandanteak esaten duen bezala, "bakea dignitatea nahi dugu", ez gara konformatu behar bake sozial batekin edo sistema ekonomikoan engranaia herdoilduekin.

Gure herrian azken bolada honetan berbar bat entzuten da kaleetan, eta badirudi ontzat ematen dutela Alemaniaren sendagai hau. Argi dago: betoker hobe, itsu baino. Baina bi begiekin ikusteko aukera badugu, zergatik konformatu bat bakarrek? Alemaniako erreforma honetan sartuko diren langileen %33-40ri murriztuko zaio bere soldata. Lana murriztu eta soldata ere bai, baina egoera hau lekuz aldatzen badugu, nik BBKn hipoteka bat badauket ez didate deskonturik egiten. Zer esan gizarte laguntzarekin konformatu behar direnei...

Gauzak argiagotzeko, "gure" ereduak estatuan enpresarien %75ek zergari ezarritako tarteetan mileurista bat bezala deklaratzeko dute! Horretarako daude paradisu fiskalak: bere txanponak horietara eramateko eta zergak txiroak bailira ordaintzeko.

Pierre-Joseph Proudhonen hitzetan, "badakigu legeak zer diren eta zertarako balio duten". Amaraunak dira aberats eta boteretsuentzat, altzairuzko kateak pobre eta ahulentzat; arrantzako sareak gobernuen eskuetan.

KULTURA[>]



PINTURA LEHIAKETA

Elorrioko haizetarako XX. Margo Lehiaketa

Argazkia: Kepa Aginako

Joan zen domeka goiz guztia izan zuten aire libreko margo lehiaketara aurkeztuko zituzten lanak osatu eta aurkezteko tartea parte-hartzaileek. Hogei margolarik hartu dute parte Iturrizoro elkarteak antolatu eta Udalak laguntzen duen lehiaketan aurtengo edizioan.


Ana Mateo pintorearen herriko enparantzaren margoak jaso du Elorrioko XX. Errebonbilo Margo Lehiaketako herriko saria.

Seihun euroko lehenengo saria Elorrioko errekararen ikuspegi bat jasotzen duen Jose Reyes margolariaren *La muralla de la guardia* margoari eman diote, eta Carlos Espigaren *Parraren ingurua* plazaren irudiak jaso du 400 euroko bigarrena. Hiruehun euroko hirugarren saria, aldiz, Iker Mugarraren *Vista aérea* izenekoa eman dio epaimahaiak.

Saria jaso dutenak zein lehiaketara aurkeztutako gainerako koadroak ikusgai izango ditugu, azaroaren 28ra arte, Elorrioko Iturri kultur etxean; astean zehar 09:00etatik 22:00ak arte eta asteburuan 09:30etik 14:00ak arte zabalik daude atek. ■ I.E.

13 Azokaren aurkezpen nagusia

Abenduaren 4tik 8ra Landakogunea, Durango eta eskualde osoa hartuko duen Euskal Liburu eta Disko Azokaren aurkezpena egin dute eguzten honetan.



14

Tolosako saioari buruzkoak

Eskualdeko bertsolarien Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako ibileraren berri Gorka Lazkanoren kroniken bitartez jasotzen dugu. Hemen Tolosakoa.

44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen



"Digitalizazioa eta Internet jakintza eta komunikazioaren aliatuak dira"

Jorge Jimenezek badaramatza urte batzuk Euskal Editoreen Elkarteko presidente lanetan. Elkarte sortu zenetik 25 urte joan dira dagoeneko. Ibilian-ibilian, urrats asko eman dituzte euskal kulturaren sustapenean; elkarlana eta zabalkundea bidaide.



Hogei bat argitaletzek osatzen duzue Euskal Editoreen Elkarte. Zerk bultzatu zintuzten elkartzera?

1984an sortu zen editoreen elkarte, eta garai haietan euskal edizioa jaioberria zen, nolabait esateko. Baziren enpresa batzuk gaur egun ere badirautek editoreen elkartean, baina ez zegoen hain garbi zer toki izango zuen Editoreen Elkarteak etorkizunean. Gauza bat da liburuak argitaratzea, eta beste bat kultur proiektu baten arabera argitaratzea. Asmoa ez zen

elkarte defentsibo bat sortzea, euskararen defentsa lana egiteko; asmoa euskal liburugintza bera munduratzeko, modernizatzeko eta erronka berriei aurrera egiten laguntzeko aukerak sortzea zen. Bai zabalkundean bai lehiaren munduan ere.

Zer bilakaera izan du azken urteetan Editoreen Elkarteak?

Euskal liburugintzarentzat ezinbesteko da instituzioetako lankidetzak bat bermatzea. Ibilbide horretan, euskal kulturaren industriak aurrera egi-

teko denon beharra dauka, eta uste dut, ardatz honetan, benetako aurrerapausuak eman direla. Beti izan dugu amets argitaletxe eta instituzioen arteko harremana eskabide hutsetik lankidetzara pasatzea. 25 urteren ondoren hori lortu dela esatera ausartuko nintzateke, eta modu iraunkorren mantentzen den ildo dela. Bestalde, euskal industriaren gizarteratzean ere badihardu elkarteak, eta horri dagokionean, balore batzuen zabalkundean lan egin dugu urteotan: idazleen eskubideen aldarrikapenean, liburugintzaren sustapenean... eta emaitza horiek askotan zaila da ikustea, ez da horren argi jakiten gizartean zenbateraino eragiten duzun. Momentu honetan, liburugintza sektorean mugitzen den jendeak, esango nuke, baduela iritzi bat, eta bagaituela erreferentzietako bat ere. Baloreen defentsan, batik bat.

Gaur egun, zer norabidetan lan egiten dute euskal argitaletxeek? Zein da helmuga?

Instituzioekin harremana mantendu eta Editoreen Elkarte gisa erreferentzia bat izateaz gain, hirugarren faktore bati heldu nahi diogu bereziki: nazioarteratzeari, hain zuzen ere. Urtean hainbat azokatan parte hartzen dugu, Frankfurt eta Mexikoko Guadalajaran, besteak beste. Madrilgo Azokako txokoa-

rekin ere gure produkzioa munduratzeko saiatzen gara.

Zer esango zenuke eskaintzen diola euskal liburugintzak jendarteari?

Komunikazioa eta jakintza-aren trafikorako euskarri batzuk eskaintzen dizkio: digitala, paperezkoa eta etorriko direnak. Horrekin batera, euskal liburugintzak estilo bat ere eskaintzen dio jendarteari. Eta kultur industria baten presentzia bera, alegia, komunikazio eta jakituriaren edukia era profesional batean zaindu eta transmititzeaz arduratzen gara.

Jendarteak euskal liburugintzari beste horrenbeste eman dio... Noski, ezinbesteko soportea da jendarteak. Harentzako argitaratzen dugu.

Hain sonatua den krisiak eragirik izan al du zuenean?

Bai, halabeharrez. Neurri diferentzetan eta ez argitaletxe guztiongan berdinean, baina eragin du, bai, zalantzarik gabe. Kontsumoa jaitsi den heinean, sektore honetan ere nabaritu da beherakada. Liburu dendetako itzulketak, hile amaieretako zenbakiak...

Horri jarraituz, digitalizazioak eta internetak bere alde on eta ez hain onak izango ditu...

Bai. Baina azpimarratu nahiko nuke soportea berriak ez direla etorri soportea zaharren

kontra. Bizikidetzan izango dira paperezko euskarriak eta digitalak luzaroan. Alde on bat azpimarratuko nuke: digitalizazioa bera komunikazioa eta jakintzarekin eskutik helduta doa, liburugintza bezala. Digitalizazioa eta internet, jakintza eta komunikazioaren aliatu dira, eta hala ulertu behar ditugu. Ez etsai gisa. Gauzak behar bezala egiten asmatu behar dugu, eta hori da gure erronka.

Euskal Editoreen Elkartearentzat zer da Euskal Liburu eta Disko Azoka?

Urteko unerik garrantzitsuenak, dudarik gabe. Test handi bat, gure lanen oihartzunak oso era zehatzean neurtzeko aukera ematen diguna. Komertzialki ere une erabakiorra askotan, eta aukera paregabe bat gure lana gizarteratzeko. Jendearengana heltzeko gune eta une aproposa.

44 segundutan

Eskuartearen dudak liburu... 'Diario de un desesperado', Reck Fiedrich **Gustura itzuliko nuke...** Michel de Montaigneren 'Saiakerak' **Ez nuke sekula irakurriko...** Dan Brown-en azken nobela **Kataluniaz jakin nahi nuke...** Nondik ateratzen duten bizikidetzarako jakituria hori **Izugarri poztuko nintzake...** Gure 6 idazleren nobela bana ingelesez ikusita **Aurtengo Azokan...** Espero dut krisia ez etortzea bisitan!

44

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA
2009ko Abenduaren 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA ZURE ESKURA DAGO

CATALÀ & EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO + 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA) X 44 URTE

Durangaldeko Adiskideen

gerediaga elkarte

BFA DFB Bizkaitik Fara Akademia / Naxtacion Foral de Bizkaia

III Institut ramon llull / Hizkuntza eta kultura katalanak

DURANGO Uztarri - Auzolanerak

bbk

eroski

eitb

USA Uztarri - Auzolanerak

AZOKA > AURKEZPENA

Kataluniako kulturagaz harremana sendotu gura du aurtengo Azokak

Katalunia da abenduaren 4tik 8rako Durangoko Liburu eta Disko Azokara gonbidatutako herrialdea



Iban Gorriti

Landako Elkartegian izan da, eguaztenean, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 44. edizioaren aurkezpena. Abenduaren 4tik 8ra arte Landakogunea eta Durangoko txoko guztiak hartuko dituen euskal kulturaren hitzordua diruz laguntzen duten erakunde eta babesleak eta azoka 1965 urtetik antolatzen duen Gerediaga elkartearen ordezkariak izan dira bertan.

Josune Ariztondo Bizkaiko Aldundiko kultura sailburuak aurkezpenean nabarmendu duenez, beste alor askotan legez egoera ekonomiko gogorak "aurrekontu murrizketa eragingo du kultura alorrean be", baina "euskal kulturaren dinamizatzaile eta integratzaile legez duen garrantzia kontuan hartuta, sekula baino beharrezko ikusten du Bizkaiko Aldundiak Durangoko Azoka laguntzea". Jon Irazabal Azokako zuzendariak azaldu duenez, iazko aurrekontuaren parekoa izango du Liburu eta Disko Azokak aurtentzen; milioi erdi euro inguruko aurrekontua darabilte.

Aurten hasi dena Azokan parte hartzeko eskaria izan da, Irabazabal zuzendariak nabarmendu duenez, 14 eskari berri jaso baitituzte. Osotara, 292 erakusmahai izango dira Landakogunean, eta 459 literatur eta musika nobedade aurkeztuko dituzte bertan.

Katalanezko literatura-ekin harreman sendoa abiatzeko pausoa

Katalunia-Euskal Herria elkarlanaren ondorio den egitaraua

Kultura katalana da 2009ko Azokarako Durangora gonbidatua, eta eguazteneko aurkezpenean herrialde hartako Institutu Ramon Llull erakundeko Josep Bargalló zuzendariak nabarmen-

du du euskarazko eta katalanezko literaturen harreman sendo baterako pauso garrantzitsua dela abenduaren 4tik 8rako ekitaldiekin abiatutakoa. Nerea Mujika Gerediaga elkarteak lehendakariak azpimarratu duenez, abenduaren 4 eta 8ra arte izango den egitaraua Katalunia-Euskal Herria elkarlan horren emaitza izango da. Hain

Sei gune nagusi izango ditu 44. Liburu eta Disko Azokak

Eskaintza benetan oparoa da abenduaren 4tik 8ra bitartekoa

Argizaiola omen-saria ikastolen sorrera urteetan andere o izandakoei

1992tik, Azokaren egunetan eta euskal kulturaren alde egindako lana eskertzeko Gerediaga elkarteak eskaintzen dauen *Durangoko Argizaiola* omen-saria ikastolen hasierako garaietan andereño izandakoen ordezkari legez aukeratu dituzten bost andereñori emango diete: Hegoaldeko lurralde bakoitzeko andereño bana eta Iparraldeko ikastoletako andereñoen ordezkari bat izango dira omenaldia jasoko dutenak.

Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparralde), Izaskun Gastesi (Nafarroa), Karmele Esnal (Gipuzkoa) eta Begoña Aranguren (Bizkaia) izango dira 2009ko Argizaiola saria jasoko dutenak.

Ikastolen sortze-garaian lanean aritutako bost ordezkariok abenduaren 5ean, 20:30ean, San Agustin kulturunean izango den ekitaldian jasoko dute Gerediaga elkartearen eta euskal gizartearen gorazarrea eta eskertza.

AZOKA ZENBAKITAN

- Parte hartzaileak: 156
- Eskari berriak: 14
- Stand kopurua: 292
- Nobedadeak: 459
- Liburu berriak: 308
- Disko berriak: 69

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 21 22:00etan
SORKUN + KEU AGIRRETXE
Udagoienko Ostera 2009
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8 euro.

AZAROAK 26 20:00etan
"HIMALAIA BAT..."
Zuz.: Sergi Ricart (AlpinArt.com)
DOKUMENTALA. Sarrera doan.

AZAROAK 27 22:00etan
ETXE + THE USKIZ
KONTZERTUA. Sarrera: 6 euro.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

PAPIRO... FLEXIA
Circle of Trust (Zaragoza) & Logela Multimedia (Elorrio)
Breakdance multimedia show

LA LEYENDA DEL BESO
Reveriano Soutullo - Juan Vert
Asociacion Lirica Sasibil
LANDAKO GUNEAN

Azaroak 22
19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEAN
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburudenda

Tel.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

PINTURA > ERAKUSKETA

Javier Gorosarriren koadroetako paisaiak lehenengoz erakusketan

Berrizko Kultur Etxean, azaroaren 29ra arte izango dira Javier Gorosarriren lanak bisitagai



Gazte-gaztea zenetik paisaiak margotzen aritu da Javier Gorosari. Oinez gure inguruetan ibilita, kolore edo argi berezia dutelako atenzioa deitu dioten paisaiak bere koadroetan harrapatzen jardun izan du. Pintura produkzio handia osatu du urteetan, baina laurogei urte dituen arte ez du sekula bere lanak erakusketan biltzeko proposamenik onartu. Orain bai, azaroaren 29ra arte ikusgai ipini du bere koadroen bilduma, lehenengoz; aste-

gunetan 18:30etik 20:30 arte daude, Berrizko Kultur Etxean.

Bisitariei koadroen inguruko azalpenak ematen topatu dugu Kultur Etxean, asteon, Gorosari, eta guri ere azaldu digu bere lan egiteko moduren berri.

Margotzen daramatzan sei hamarkada baino gehiagoan, Berrizko Andikoa edo Sarria lako lekuei zein inguruko beste leku batzuei egindako margoak, grabatuak eta zizelkatze-lanak ere bildu ditu erakusketarako.

Erakusketako pieza gehienak margoak izan arren, bere bizitzan grabatua landu izan duela gehiago azaldu digu Gorosari pintoreak. Bere etxean zein tailer moduan erabiltzen duen ganbaran dituen koadro guztien laurdenabaino gutxiago da, hala ere, erakusketan sartu ahal izan duena.

Aldi berean bi edo hiru lan izaten ditu Javier Gorosarik esku artean

Erakusketan antolatzeak lan handia eskatzen duela esan digu, eta bere hamarkadetako ekoizpenetik zati bat aukeratzeko aritzetik, osatu eta bukatutzat emateko hainbat koadro "berreskuratu" dituela: bere garaian amaitutzat eman barik utzitakoak lantzeko gogoz dago Gorosari. Izan ere, horrela egiten baitu pintoreak; "pauzatzeko uzten" ditu koadroak, pinturak bere izatea har dezan.

Astegunetan 18:30 eta 20:30 bitartean dago erakusketan ikusgai

Aldi berean bi edo hiru koadro izaten ditu esku artean, eta tartean joaten da bukatu barik utzitakoak berreskuratzeko. Zuloagaren berbak gogora ekarrita, "margotu, margotu eta margotu" da bizitza guztian Javier Gorosarik baliatutako teknika, erakusketan islatuta ikusten dena. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustingo programatzailea

Gustatuko litzaidakeena

Bizitza Europan zehar bidaiatzen ematen dudala irudi dezakeen arren, ez da egiazki horrela; are gehiago, hegazkinei diedan izuagatik, urteak ziren bidaiatzen ez nuela. Pentsatzen dut, baina, parean suertatzen diren aukerak aprobetxatu egin behar direla, eta hori da, hain zuzen ere, aurreten gertatu zaidana.

Aurreko zutabean Londreseko bidaiari buruz jardun nuen, eta Espainiako Antzokien Sareak urrian Holandara antolatutako bidaiari arituko natzazue oraingoan: lau egunetan lau hiri, hamabi antzoki eta arte eszenikoen eskola bat bisitatu genituen.

Ekoizpen pribatua eta titulartasun publikoa da, Estatu espainolean bezala, Holandan dagoen eredua. Beste hainbat gauzatan, baina, gu baino 50 urte aurreratuago doaz han. Hemendik hamarkada batzuetara, euren oraingo egoeran egon gaitzela: horixe gura neuke. Kirolean bezala kulturaren inbertitzearen gaineko benetako kontzientzia dute: inori ez zaio bururatzen aretoak defizitarioak ote diren galdetzea; igerilekuek defizit publikoa sortzen duten galdetzen ez duten moduan.

Hemengoarekin alderatuta, hamar aldiz aurrekontu handiagoa izaten dute aretoek Holandan. Eta proportzio berean dira handiagoak euren ikuskizunak prestatu dituzten Gobernuak konpainiei ematen dizkieten diru-laguntzak ere. Politika horien bitartez lortzen dute emanaldietan aretoetako jesarlekuen %85 betezea. Doako sarrera baten truke, aretoetan bolondres lana egiten duen jende kopuruak harritu gintuen, batez ere; kalean programazio-orriak banatzen edo antzokiko tabernan lan egiten duten ikasleak ikustea da harrigarriena.

Argi dago kontua ez dela diru gehiago izatea bakarrik: egiteko asko dugu zentzu guztietan. Bide horretan nire aletxoak uzteko, bidaia hauetan zerbait ikasi izana da espero dudana.

* Erredakzioan itzulia

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

kronika

Gorka Lazkano

Azken aukeraren bila

Amaitu da finalurrekoetako lehenengo itzulia eta heldu da azken kartutxoak botatzeko sasoia. Zapatuan, Tolosan, Sustrai Colinak irabazi eban, eta domekan, Hendaiako Beltzenian, Amets Arzallusek. Asteburu honetan, beraz, iparraldekoak nagusi.

Tolosan izan zen Igor Elortza be, eta ezin esango dogu suertean handirik eduki ebanik. Eder to hasi zen zortziko nagusian, biloba edukitzeko zain dagoen amamaren paperean, Sustrai gaz batera, eta emoten eban bere eguna izango zela.

Zortziko txikian, ordea, Udaletxekoekin ondo konpontzen ez zen segalaria izatea tokatu jakon, eta hortxe eduki eban eduki be eguneko estropezua: hirugarren bertsotan poto egin eban.

Hortik aurrera asko kostatu jakon bere betiko maila erakustea, eta esango neuke kartzelako lanera arte ez genduela betiko Igor entzuterik izan. Seiko motzean be bota eban ale hunkigarriren bat, baina, bere "fuer-teetako" bat den puntu-erantzunean be hankaluze bat egin eban. Uste dot potoagaz konturatuz zela

eta urduri samar kantatu ebal saio osoan zehar.

Zorionez, kartzelako lanean berriro bere onera etorrita ikusi genduen, eta lehenengoz putetxera doan alargun baten istorio errealista kontatu euskun; hiru bertsok be ez ziren txarrak izan, baina, bereziki, bigarrena oso ederra izan zen. Hortxe egin eban gora, eta hori dela-eta sailkatzea lortu dau hurrengo bueltarako.

Ez da Durangaldeko ordezkari bakarra izango, Unai Iturriaga eta Miren Amuriza be han izango dira. Datorren zapatuan Gernikan kantauko dabe Miren eta Igorrek, eta domekan Iruñean Unai. Badaukagu nor animatua eta itxaron dagigun finalean be hirurak egotea.

Bota azkenengo kartutxoak, eta zorte on hiruroi!

Ezin esango dogu zorte handirik eduki ebanik Igor Elortzak

Zorionez, kartzelako lanean bere onera etorrita ikusi genduen



Galder Izagirre

**ERASORIK EZ
ERANTZUNIK GABE**

*Nazkatuta gauden
emakumeon
Autodefentsa*

AZAROAK 25
Emakumeenganako
indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna

**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO
ZERBITZUA**



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

Tel.: 94 620 04 92



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Durangon be, emakumeak beldur barik kalera



‘Beldur barik’: horixe da EUDEL eta Berdinsareak azaroaren 25ari begira martxan jarritako kanpaina, eta Durangok be bat egingo dau asmo berean. Aurten, batez be, gazteei zuzenduko deusie mezua, indarkeriaren aurreko beldurra gai hartuta. Ekitaldiak eta mobilizazioak izango dira datozen egunetan.

Durangoko Udalak, Berdintasun Kontseiluaketa Plataforma Feministak antolatuta, hamaika ekimen izango dira hurrengo egunetan Durangon, azaroaren 25a dela-eta. Egun hori, emakumeenganako indarkeriaren aurkakoa kontsideratzen da, eta salaketarako tartea hartzen dau eragile batek baino gehiagok. Dena dela, egun horren bueltan aparteko ekitaldiak be eskainiko dira.

Joan zen hasteko udalbatza-rran, adierazpen instituzionala onartu eban Durangoko Udalak, egoera azalduz eta konpromisoak hartuz. Indarkeria fisikoaz gainera, “indarkeria sinbolikoa” be badagoela zinoen adierazpe-nean; “ikusiez arren, horren bidez beldurra sortzen da”, jarraitzen

Durangoko Udalak “politika aktiboa, integrala eta koordinatua” garatzeko konpromisoa hartu dau

eben. Adibidea be ipini eben: “Zenbat neska gaztek egin dabe arinetan edo aldatu dira espaloiz, atzetik pausoak entzun eta beldurra sentitu dabelako?”

Horren aurrean, Durangoko Udalak “politika aktiboa, integrala eta koordinatua” garatzeko konpromisoa hartu dau. “Neska gazteei ahultasunari aurre egiteko baliabideak emotea” gura dabe, eta mutil gazteekin be lan egingo dabe, “jarrera sexisten prebentzinorako eta erasoan aurrean jarrera aktiboa hartu daien animatzeko”. Udalak “koheziketa- ren” aldeko apustua egingo dau, ikastetxe eta familiekin.

Bestalde, eguenero 20:00etan Andra Marian izaten den kontzentrazioan parte hartzera gonbidatzen ditu herritar guztiak.

Egitaraua

Astelehenean egin eben azaroaren 25aren harira antolatu diren ekitaldien barri emoteko prentsaurrekoa. Berdintasun Saileko Kety Arrabal teknikariak eta Goiztidi Diaz batzordeburuak azaldu zitueen egitarauaren nondik norakoak. Ekitaldi garrantzitsuenetarikoa hilaren 24ko ikuskizuna izango da: *Kalean uso, etxean otso*. Dantza, dokumentala eta eztabaida batzen dituen ekimen horren zuzendaria Aizpea Goenaga da, aktore eta zuzendari ezaguna.

Azaroaren 25ean bertan, mobilizazio bi egingo dira Durangon: 13:00etan Udaletxeko arkupean, Udaleko Berdintasun Kontseiluak deituta, eta 20:15ean Andra Marian, Plataforma Feministak antolatuta. Hain zuzen be, Diazek eskerrak emon eutsezen eragile horreei, “egiten daben eguneroko lanagaitik”.

Horretaz gainera, puntu moreak banatuko ditue herrian zehar, +Dendak eta Durango Bai elkarteetan laguntzagaz. Hilaren 25ean leihotetan ipintzeko izango dira puntu horreek; Udale-

txean, ostera, argi more bat bideratuko dabe fatxadara, puntua irudikatuz.

Aipagarria da gaiagaz lotuta buruturiko literatur lehiaketa be. Aurkeztutako 72 lanetan onenak eguztzen arratsaldean sarituko ditue.

Autodefentsa

Azkenik, ezin ahaztu hurrengo egunetan Andragunean autodefentsa tailerra eskainiko dauela Maitena Monroyk. 23 emakume emon dabe izena dagoeneko, eta berdintasun arloko ordezkariak “pozik” agertu ziren, horreetako asko neska gazteak direlako. ■M.O

“Neska gazteei ahultasunari aurre egiteko baliabideak emotea” gura dabe, eta mutilekin be lan egingo dabe

“Jendea emoziora eraman nahi dugu”



Aktore, gidoigile eta zuzendaria: curriculum luze eta zabala da Aizpea Goenagarena. Martitzenean Durangon eskainiko duten *Kalean uso, etxean otso* ikuskizuna zuzendu du.

Ikuskizun hau ez ohiko lana da. Zer aurkituko dugu?

Maitemintze fasetik hasi eta indarkeriaraino garatzen den maitasun istorio bat kontatzen dugu. Istorioa dantza eta dokumental zatiz osatuta dago, eta ordu erdi irauten du. Gero, 40 minutuko solasaldi bat zabalitzen da. Talde ona elkartu gara: koreografian Ana Remiro egon da eta Musika Iñaki Salvadorrena da, besteak beste.

Gertaera erreal bat du oinarri.

Tratu txarren inguruko istorio bat idaztekoan nintzenean, eraso gogor bat gertatu zen Donostian: Emma Larreta 25 labankadaz josi zuen bere gizonak. Emmak publikoki salatu eta zerbait egiteko asmoa agertu zion Donostiako Udalari, eta hortik sortu zen ideia.

Gaia hain delikatuia izanda, ez zen erraza izango lan egitea...

Espektakulu gogorra da; horregatik da 30 minutukoa. Dokumentala indarkeria pairatu duten 11 emakumerekin egin genuen, eta eurak hustu egiten dira kamera aurrean. Grabazio sasoiari, beheak jota ailegatzeko nintzen etxera.

Zer lortu gura zenuen?

Lan honekin ez genuen ezer irakatsi edo kontaktu gura, baizik eta jendea emoziora eraman. Bizi dugun zentzugabekeria ulertzeko, iruditzen zitzaidan horrelako ikuskizun batek tripetara joan behar zuela. Bestalde, gero eztabaida zabaltzeari garrantzia emon genion, ateratako emozioak konpartitzeko. Orain arte, esperientzia oso onak izan dira; hasieran kostatu

arren, jendeak gogoz parte hartzen du.

Zer suposatu du zuretzako lan honek, zuzendari legez?

Oso gogorra izan da, baina, era berean, egin dudana lanik pozgarrienetakoa izan da. Oso harro nago egin dugun lanaz. Bihotzera heltzen den lan bat dela uste dut, eta hori gaitza da.

Gogortasun horrek indarra ere emango dio...

Hori gazteengan nabaritzen da. Hasi aurretik paso egiten legez egoten dira asko, eta amaitzean hunkituta, istorioan sartuta egoten dira.

Sorkuntzak hartu-emanan izan behar al du gizarte gaiekin?

Denerako lekua dagoela uste dut, helburuaren arabera: lan honekin, pertsona batzuk identifikatuta sentituko dira; *Cocidito Madrileño* ez, baina barrez lehertuko dira.


Aktore, zinegile, idazle... Ez zara geldirik egotekoa.

Aste honetan *Cocidito Madrileño* estreinatu dugu Bilbon, eta datorrenean *Arrainontzia* antzezlan aurkeztuko dugu Azpeitian. Gero Kubara noa, *Dragoi ehiztaria* filmea grabatzera. Irakurzaletasuna bultzatzeko saioretan ere banabil; Berbarorekin, esaterako. ■M.O

BELDUR BARIK!

AZAROAK 25: DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.

<http://avstarberdintasuna.blogspot.com>



EKINTZAK

Asteartea, 21

DANTZA DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA
 “KALEAN USO, ETXEAN OTSO”. Ikertze arte (Donostia)
 Zuzendaritza: Aizpea Goenaga
 Lekua: San Agustin Kultur Gunea
 Ordua: 20:15
 Helduentzako
 Dohainik

Asteazkeroa, 25

KONTZENTRAZIOA
 Durangoko Udalak, Durangoko Berdintasunerako Udal Kontseiluak deitutako kontzentrazioan parte hartzera animatzen zaitu.
 Lekua: Udaletxeko arkupetan
 Ordua: 13:00

AZAROAK 25 II. LEHIAKETA, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkiak.
SARI BANAKETA
 Lekua: Andra Mari
 Ordua: 19:30

MANIFESTAZIOA
 Durangoko Udalak, Durangoko Plataforma Feministak antolatutako manifestazioan parte hartzera animatzen zaitu.
 Lekua: Andra Mari
 Ordua: 20:15

Etxeko leihoetan puntu lila ipintzeko gonbita

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean puntu lilak banatuko ditue Berrizko hainbat tokitan



Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean harira, Berrizko Udalak hainbat ekitaldi antolatu dau. Horrez gainera, puntu lila norbere etxeko leihoetan edo balkoietan ipintzeko gonbita egin dabe. Udaletxean, Kiroldegian eta Kultur Etxean eskatu leiteke, dohainik, puntu liladun trapua.

Lehenengo ekitaldia gaur bertan da. Vaiven antzerki taldeak *El club de las mujeres invisibles* antzezlana erakutsiko dau. Emakume ikusezinei buruzko istorio komikoak eta dramatikoak kontatzen ditue. Egile izendunen eskutik jaiotako istorioak dira: Jordi Galcerán, Aizpea Goenaga, Arantxa Iturbe, Juan Mayorga, Oscar Terol eta Susana Terolenak. Antzezlana 22:00etan hasiko da, Berrizko Kultur Etxean. Sarrera zortzi euroan salduko dabe.

Vaiven taldeak 'El club de las mujeres invisibles' eskainiko dau gaur

Hilaren 25ean, indarkeria jasan daben emakumeak eta indarkeriaren ondorioz hildirenak gogoratzeko Urtiaga plazan kontzentratuko dira, 19:00etan. Kontzentrazioagaz bat egingo dau, udal ordezkarietz gainera, Gure Izarrak emakumeen elkarteak, besteak beste. Ondoren, Gaberdi taldearen ikuskizuna egingo da.

Hilaren 25ean kontzentrazioa egingo dabe Urtiaga plazan

Datorren barikuan, azaroaren 27an, *Asaldatzearen kontra erantzuna: emakumeenganako biolentzia* izeneko tailerra emongo dabe Kultur Etxean, 16:30etik aurrera.

Egutegian egun bakarra dago emakumeenganako indarkeriaren kontrako egun moduan, baina Berrizko Udaleko Berdintasun Sailak urte osorako programa landu dau. Besteak beste, Miriam Herbon feminista eta soziologoa-ren eskutik, feminismitik gaur egungo gizartea ulertzeko tailerlean lanean dabilz hainbat emakume bariku guztietan. ■ J.D

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZI!

- Azaroak 25, asteazkena
19:00etan kontzentrazioa,
Urtiaga plazan
"Gaberdi" taldearen ikuskizuna
- Azaroak 27, ostirala
16:30ean tailerra,
"Asaldatzearen kontra erantzuna:
emakumeenganako biolentzia",
Kultur Etxean.
22:00etan antzerkia,
"El club de las mujeres invisibles",
Kultur Etxean. (8euro)

2009ko azaroak 25 - 2010eko azaroak 25:
Urte osoko aldarrikapena da. Jarri puntu lila.



Egun bat gogoratzeko, urte osoa indarkeriaren aurka lan egiteko

15-25 urte bitarteko gazteekin behar egingo dabe prebentzioaren bidean

Emakumeenganako indarkeriaren kontra lan egiteko urte osoa eta gehiago behar da. Indarkeriak badirauela eta gizarteko arazo larria izaten segitzen dauela gogoratzeko ondo dator beregi bideratutako eguna. Baina Berrizko Udaleko Berdintasun Sailak beharrezko ikusten dau urte osoan garatzeko plangintza orokor baten beharra.

Besteak beste, orain 15 eta 25 urte arteko neska-mutilekin lan egin gura dabe: "Horrek ez dau esan gura adin tarte horretan ez dagozen emakume eta gizonekin lanik egingo ez dogunik, baina etorkizuneko herritarrek gaur egungo nerabeak dira; ondorioz, ezinbestekoa iruditzen jaku patriarkatuak ezarri dauen indarkeria sexista estrukturala ezabatzeko arazoaren identifikazioan eta prebentzioan lan egitea", adierazo dau Naiara Garate berdintasun teknikariak.

Bestalde, Berrizko Udalak poltsikoko gida batzuk aterako ditu, Eudel eta Berdinsarearen bitartez. Berdinsarea emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiten daben Eudeleko udalerrien sarea da. Kaleratuko daben gida neska-mutientzako aholku gida da, eragile askoren arteko lanagaz eratua.

Aitatutakoaz gainera, "indarkeria sinbolikoaren inguruan eztabaida sortzea eta berau ikusaraztea garrantzitsua" dela uste dau Garatek, "ondoren emoten diren forma desberdinei aurre hartu ahal izateko". Eztabaida hori sustatzeko blogak, eztabaida taldeak, ikastaroak, lehiaketak... antolatu ditue. Horren gaineko informazioa jasotzeko Udaleko Berdintasun zerbitzura jo leiteke; bestela, e-mail bat be badaukie: berdintasuna@berriz.org.

Instituzinoek ez dabe beti asmatzen indarkeria jasan daben emakumeei laguntzeko martxan ipinitako baliabiadeak herritarrei helarazten. Ildo horretatik, gogoratu dabe Berrizko Udaleko Gizarte Zerbitzuak Sailean eta Berdintasun Sailean berehalako laguntza jaso daitekeela: aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, bestelako programak... ■ J.D

Berrizko Udalak, Berdinsarearen bidez, gazteendako aholku gidak kaleratuko ditu

“Mugimendu feministaren desmobilizazioa nabaritu dot”

Mujeres Creando elkartearen bitartez, Maria Galindo feminista boliviarrak zuzendutako ‘Amazonas, mujeres indomables’ dokumentalak emakumeen kontrako indarkeria lehen pertsonan erakusten dau; Errota kultur etxeko emonaldian 50 lagun batu ziren.

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, Abadiño-ko Udalaren egitarauaren barruan, *Amazonas, mujeres indomables* dokumentala erakutsi eben, joan zen barikuan, Errota kultur etxean. Maria Galindo (oso feminista ezaguna da Hego Amerikan) zuzendaria hantxe egon zen, bertaraturako eritziak jaso eta bere proiektuak azaltzeko.

Besteak beste, Arrasaten eta Gasteizen be erakutsi dauen dokumentalak Buenos Airesen (Bajo Flores auzunean) indarkeria pairatu daben etorkin boliviarraren testigantzak jasotzen ditu, lehenengo pertsonan. Izan be, “eurak dira gitxien entzuten doguzenak”, salatu dau Galindok: “Eta entzuten doguzen apurretan, biktimismoan erortzen den ahotsa nabarmentzen jake, helbururik ez baleuke legez, beste norbaiten laguntza beharrezko balebe moduan”. Dokumentalean, aldiz, protagonistak “duin eta argitasunez min-

“Instituzinoetatik bideratutako kanpainak ez dira eraginkorrak”

“Gizarteak babestu egiten dauela sentitu behar dau emakumeak”

tzo dira, etorkizuneko planekin eta subiranotasunaren jabe”. Diskurtso hori unibertsalizatzea dau helburu, arazoari aurre egiteko ahalmena onartzea eta norbere egitea “urrats inportantea” delako.

Hain zuzen be, horixe ei da instituzinoen hutsegite nagusia. Indarkeriaren kontrako kanpainak “garesti, eraginkortasunik bako, aspergarri eta errepikakor-tzat” jo ditu: “Emakumeek zergura daben badakitela suposatzen dabe, baina ez da horrela”. Ildo horretatik, Nagore Lafaggeren kasua gogoratu dau: “Nik eskole-tan galdetuko neuke: zer uste dozu pentsatuko ebala Nagore? Hildakoari berba eragingo neuskio. Tratu txarrak hartzen dituen emakumeak badaki zer jasaten dabilen. Ez dauka inork hori eten barik gogorarazi beharrik”.

Ildo horretatik, Euskal Herrian zein Espainiar Estatuan “fikzino batean” bizi garela dino, demokraziak diktadurak eragindako gaitzak sendatu dituen ustean. Horren

aurrean, instituzinoekin besteko kritiko ageri da mugimendu feministagaz: “Gauzak ez dagoz ondo. Tratu txarrek eragindako hilketen kopurua ikustea besterik ez dago. Horren aurrean, ahots feminista eta publiko baten hutsunea nabaritu dot”. Horren arrazoia ez ei da

elkartasun falta, mugimendu feministaren azken urteetako “desmobilizazioa” baino. Badira aste bi penintsulara etorri zena eta hizlari moduan medikuak, abokatuak, psikologoak... ikusi ditu, “baina ez guk hau uste dogu eta egoera horrela planteatzen dogu azaldu dauen indar feministarik”.

Instituzinoetan eta hedabideetan tratu txarren gaitza munitik mozteko irtenbidea hezkuntza dela azpimarratzea oso argudio erabilia da, baina “hezkuntza dinogunean ez dogu ulertzen botere erlazinoan oinarritutako arazo bat dela. Emakumea bera da ezetz esan behar dauena. Horretarako ausardia ez dau hezkuntzatik hartzen, gizartetik baino; gizarteak babestu egiten dauela sentitu behar dau emakumeak”. ■ J.D



Maria Galindok hainbat herritan erakutsi dau dokumentala.

RELDUR BARIK!

AZAROAK 25:
DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.
<http://avatarbordintasuna.blogspot.com>

Logos: EUEDE, Abadiño, etc.

EGITARAKUA

Azaroak 13, barikua, Errota Kultur Etxean

19:00 - “Amazonas, Mujeres indomables” dokumentalaren aurkezpena Bolibiako Mujeres Creando elkartearen eskutik

Azaroak 25, eguaztena, Errota Kultur Etxean

19:00 - “Rosas Rojas” antzezlan, La Pipa produktioak. Sarrera / 3 euros
20:30 - Elkarretaratzea emakumeenganako indarkeria salatzeko

Azaroak 26, eguena, Txanporta Kultur Etxean

19:30 - Argazki emanaldia eta hitzaldia “40 urtetik gorako emakume mendizaleak” Marimendi elkartearen eskutik

Azaroak 27 eta 28, barikua eta zapatua, Matienako eskolefako gimnasioan
Autodefentsa ikastarou. Barikuan 16:00etatik 20:00etara; zapatuan 10:00etatik 14:30etara eta 15:30etatik 19:30etara. | Zen emotea kultur etxeetan.

Azaroaren 16tik 28ra, Errota Kultur Etxean
“Guatemalako emakumeen egoera” argazki erakusketa Bateginez OKEiren eskutik

900 840 111. 24 orduko zerbitzua, doan eta konfidantziala. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzat, eta egoera horretaz ohartzen diren pertsonentzat. Ahoikularitza eta arreta psikologiko profesionala.

= Hautzaindegi zerbitzua alde aurretik eskutuz: 94 466 94 20

Abadiño
Euzko Legebiltzaren Kudeaketa eta Arloa

Lehiaketa. Durangoko komertzio txikiaren abantailak ondoen islatzen dituen lanarentzat, 1.000 euroko eros txartela; 500 eurokoa emongo dabe ikusleek. Azken eguna, azaroaren 23a —WMV, MPG edo FLV formatoetan—, Durangoko Plateruen Plazako egoitzan (94 681 68 37 / www.duer.es).

LITERATURA

IURRETA

- » **Munduko emakumeen literatur tailerra.** Astelehenero, 18:15ean, Udal Liburutegian.
- » **Hautxoan Irakurketa Kluba (3-6 urte),** azaroaren 20an, 17:30etik 18:30era, Liburutegian. Hilaren 24an be bai: 8-10 urte, 17:00etan, eta, 10-12, 18:00etan.

MUSIKA

ABADIÑO

- » **Done Zezili abesbatza (Abadiño) + Andeka Gorrotxategi eta Joan Okiñena (pianoan),** azaroaren 24an, 19:30ean, Probalekuan. San Trokaz elkarteak eraturta, 3. Adinekoen XVII. Kultur Astea dela-eta.

BERRIZ

- » **Etxe,** azaroaren 21ean, 22:00etan, Kultur Etxean: 'Heldu eskutik' diskoagaz.

DURANGO

- » **Puro Chile + Narrats.** Azaroaren 20an, 22:00etan, Plateruenean.
- » **'Udagoieneko Ostera': Sorkun + Keu Agirretxea.** Azaroaren 21ean, 22:00etan, Plateruenean.
- » **Musika Hamabostaldia: 'La leyenda del beso'** zarzuela,

azaroaren 21ean, 19:00etan, Landako erakustazokan.

ELORRIO

- » **Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Points (Txekiar Errepublika-Jazz),** azaroaren 20an, 22:30ean, Ateneoan.

- » **Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Wilko Johnson (Erresuma Batua-Blues) + Benjamin Tehoval (Frantzia-Blues),** azaroaren 21ean, 22:30ean, Ateneoan. **Chilis con carne (Merida-Blues),** azaroaren 22an, 21:30ean, Parra tabernan.

ERMUA

- » **Santa Zezilia Jaialdia: Alboka**

musika eskolakoak + Txindurri taldea, azaroaren 20an, 22:00etan, Santiago elizan. **Kalejira Irutxila txarangagaz,** 22an, 12:00etan.

- » **Jazz-blues Zirkuitua: Jimmy Arrabit Trio (Euskal Herria),** azaroaren 21ean, 20:00etan, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

- » **Bilboko XII. Nazioarteko Kantu Lehiaketa: Guk-Hoe Song (baritonoa) + Ekaterina Bakanova (sopranoa),** azaroaren 26an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.
- » **Kerobia + Lauroba + Garen,** azaroaren 21ean, 21:00etan, Idabamusik aretoan.

ZINEKLUBA

ABADIÑO

- » **Umeendako: 'Rudy txerri azkarra',**



Azaroaren 21ean, 23:00etan

SORKUNEN AHOTSA DAKAR UDAGOIENEKO OSTERAK

Topaguneak antolatutako Udagoieneko Ostera egitasmoaren eskutik eskainiko dau kontzertua Sorkun abeslariak Plateruenean. Erreterian (Gipuzkoa) jaiotakoak bakarkako disko bi kaleratu ditu, baina, 1990eko hamarkadan egin zen ezagun Kashbadeko abeslari legez. Ondoren, Negu Gorriak, Joxe Ripiau eta Fliter taldeekin jardun eban; Fermin Mugurazagaz be aritu da. Keu Agirretxea be igongo da Platerueneko oholtzara.

azaroaren 20an, 18:30ean, Txanporta kultur etxean.

DURANGO

- » **'El secreto de sus ojos',** azaroaren 26an, 20:30ean, Zugaza zinemian.
- » **'Paradise Now' (Palestina), Uztartuz elkartearen eskutik,** azaroaren 20an, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.

ERMUA

- » **Kolonbiako zinearen zikloa: 'La sombra del caminante',** azaroaren 26an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

IURRETA

- » **Bideoforuma: 'Antonia',** azaroaren 26an, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Moderatzailea, Marina Santa Coloma (Skolastika). Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren haritik.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Luna Nueva
Zuzendaria: Chris Weitz
barikua 20: 19:00 / 22:00
zapateria 21: 19:30 / 22:30
domeka 22: 19:30 / 22:30
astelehena 23: 18:00 / 20:30
martitzena 24: 20:00




Umeendako zinema

Cuento de Navidad (3D)
zapateria 21: 17:00
domeka 22: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Zorion perfektua
Zuzendaria: Jabi Elortegi
domeka 22: 20:00
astelehena 13: 20:00



Umeendako zinema

Vicky Bikingoa
domeka 15: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa
Agora
Zuzendaria: Alejandro Amenabar
zapateria 21: 22:30
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:00



Umeendako zinema

Up
domeka 22: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 20
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Zapateria, 21
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / De Diego / Unamunzaga / Navarro / Sagastizabal (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Domeka, 22
09:00-09:00
• De Diego (Inbaurrondo 22 - Durango)
Astelehena, 23
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Martitzena, 24
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Eguaztena, 25
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguena, 26
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

18° BARIKUA
Hodei gehiago ikusiko dogu zeru-sabaian. Urdinguneak eta ostarteak tartekatuko dira. Hego-mendebaldeko haizea indartu egingo da. Balio atseginetan mugituko dira termometroak.

22° ZAPATUA
Fronte txiki baten bisita itxaroten dogu. Goizean ateri eutsiko deuto oraindino. Arratsaldean, lainotu ondoren, eguraldiak euritara joko dau. Hegoaldeko haizeak joko dau eta tenperatura epelagaz jarraituko dogu.

15° DOMEKA

14° ASTELEHENA

21° MARTITZENA

ERITZIA

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Sei hankako mahaia



Mikel Basabe Aralar

Berriz ere Udal Gobernuagaz lotsaturik

Iritzi artikulu honetan Abadiño Udaleko azkeneko aldirikariari buruz daukadan iritzia adierazi nahi dut. Pasa den astean abadiñar guztiok gure etxeetan Udal Gobernuak argitaratzen duen aldizkaria jaso dugu. Iritzi artikulu honetan ez naiz bertan idatzita dauden berriak baloratzera sartuko. Kasu honetan, hizkuntzaren erabilera edo ez erabilerari buruz hitzegiteko idazten dut. Udal Gobernuak, aldizkaria euskaraz eta gaztelaniaz idatzita atera nahi izan duenaren ustea daukat, baina, benetan, ez du inolaz ere lortu. Hainbat arrazoiengatik euskaraz idatzitako erdia oso gaizki idatzita dago. Alde batetik, hitz batzuk gaztelaniaz daudelako, beste batzuk euskaraz gaizki idatzita daudelako, kasu askotan esaldiek ez daukatelako batere loturarik bata bestearekin... eta abar luze bat. Benetan arduragabekeria handia deritzot. Euskara eta euskarazko irakurlearekiko errespetu falta ikaragarria. Nik beti pentsatu dut gauza bat egitearen ahaleaginean erratzea hobe dela inoiz ez ahalegintzea baino, baina ahalegin edo saiakera hori inolako ardura edo konpromezu gabe eginez gero...

Iritzi artikulu hau gehiago ere luzatu daiteke, baina ez dauka zentzu askorik, mina eginga baitago. Gainera, benetan aldizkaria argitaratzearen ardura izan dutenek ez dute hau irakurriko, edo, agian bai, gaur egun batek baino gehiagok irakurtzen duena ulertu ezagatik lasai asko irakurtzen baitu zerbait erakutsarazi nahirik.

Utzi, mesedez, itxurakeriak, eta egiten duzuen ondo egiten ahaleginu eta lortzeko moduak jarri, mesedez.

Gorka Larrinaga Agirre - Abadiño

Klik batean @



Laprast egiteko arriskua Matienan

Matienako Juan Antonio Untzueta kaleko zoru barria oso labanorra da bustita dagoenean. Hormigoiz estalitako tartea da arazoak emon dituen. Ondorioz, zonalde hori itxi egin dabe. Durangoko abenduko izotz pistak aurten badauka kompetentzia!

'A ver' zaleak

Barriro be dabilz garaipena lortzeko bezpera gertetan, barriro be ei delako ereindakoaren uzta batzeko momentua. Barriro be.

Igual izango da orainoa: ia halan den! Baina horretarako beharra egin beharko dabe, barruan sendo egin be, "oraingoan bai" gura daben guztiak. Izan be, egia da Estatuak ez dabela estrategia aldatu daien gura — zeozergaitik izango da, ezta?—, baina egia da, baita be, barruan be izango dabela aldaketaren kontrako jarrera. Oraingoan, beraz, benetan aldatu gura badabe, ezin izango dira 'a ver' zer gertetan den begira geratu. Erabakia hartu beharko dabe aldaketa gura daben guztiak, eta aldaketa hori ezinbestekoa dela erakutsi beharko deusie barruan lehengo lepotik burua jarraitu gura dabenei. Bestela, orain arteko guztietan legez, erabakia gitxiengo batek hartuko deusie, eta barriro be geratuko dira, aldaketa zaleak, uzta batzeko hurrengo denpora noiz daukien zain.

Beharrean hasi, inplikatu, jarrera hartu eta defenditu, behar den leku guztietan

Ezta, beraz, 'a ver' zer momentua: beharrean hasi, inplikatu, jarrera hartu eta defenditu, behar den leku guztietan eta behar den indar guztiagaz, jarrera hori izan daiten nagusitzen dena. Aurre egin ez bakarrik kanpoko arerioari, barruko abangoardiari be bai. Herri ardurak eskatzen dau estrategia zahar eta gauditua aparkatu eta aurrera begira jartzea, indar unionistak orain arte eregitako apurra desmontetan hasi direlako, eta etorkizuna urte askotarako hipotekatu gura deuskuelako. Inoren zain geratu barik, pentsetan dena ozen eta garbi esanez. Ez bakarrik lagunartean, jentaurrean be bai.

'A ver' zale ez garan aberzale guztiok eskertuko geunskizue.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko azaroaren 20a - 8. urtea - 352 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Mallabia Bastidak areto futboleko daraman martxa harrigarria da. Azken urte bietan segidan mailaz igotzea lortu du; bigarren erregionaletik goren mailara. Aurten, maila handiagoko taldeen kontra neurtzeaz gainera, gorenko arauetara moldatu behar izan dute (25 minutuko zatiak beharrean, 20koak jokatuz eta kronometroa geratuz). Hori guztia fitxaketa bakarrarekin. Hala ere, joan zen asteburuan partidu guztiak irabazita zetorren lbai-zabal ahaltsua menderatu eta lider ipini ziren. Goren mailako gorenearan kokatu dira.

“Egia esanda, geu gara lehenengo harrituak”, onartu du Juan Carlos Perez entrenatzaileak. Mallabiak orain bost urte

Goreneko gorenearan

hasi zuen bere ibilbidea talde federatu legez, eta denbora gutxian emaitza itzelak lortu dituzte. Horren sekretua taldea, blokea, ahalik batuen mantentzean egon da: “Urte asko daramatzagu elkarrekin jokatzen, eta hori asko igartzen da, batez ere, atzealdean. lazko igoera, esaterako, defentsan oinarritu genuen”, gogoratu du Perezek.

Aurten eraso indartu dute, Yerai Vázquez taldera batuta. Zaldia futbol taldetik etorri da eta aurrean bereak eta bi egiten dabil, Josu Araiztegiarekin batera: “Bakoitzak bere dohaiak ditu. Yerai potentzia handiko jokalaria da; Josuk, berriz, abildade handia du motzean. Horrek erasoko baliabideak ugaritu dizkigu”.

“Yerai Vázquez taldera batzeak erosoko aukerak ugaritu dizkigu”

Etzi Soloarteren kontra arma horiek erabiliko dituzte. Basauriko taldea azken hirugarren dago, baina “ez du oraingo errealitatea islatzen”, ohartarazi du: “Nazional A mailan taldea dute, eta filiala txarto zebilenez hango jokalaria batzuk utzi dizkiete. Beraz, sailkapenak erakusten duena baino partidu zailagoa da”. ■ J.D.

24 Partidu apartak saririk ez

Tabirakok partiduko hondarrean galdu zuen Ardoiren kontra epaileak kiroltasunik gabeko falta adierazi ondoren. Bihar Artiedaren kontra jokatuko dute etxean.

25 Cafés Baqué, finalerdietan

Eguaztenean final-laurdenetako partiduak jokatuko zituzten, lurretako Olaburu pilotalekuan. Hilaren 25ean finalerdiak jokatuko dituzte; finala Abadiñok hartuko du 29an.

Ardoiren kontrako porrot mingarria ahazteko aukera

Epaileak kiroltasunik gabeko falta adierazita galdu zuen Tabirakok



Bihar Artiedaren kontra jokatuko du Alberto Molinak zuzendutako taldeak. Judit Fernandez

Ardoi liderraren kontra partidu aparta jokatu zuen joan zen asteburuan Tabirakok, nahiz eta azkenen galdu (69-68).

Partiduko zatirik handienean aurretik joan ziren markagailuan (17 puntuko aldea izan zuten). Azken laurdenean markagailua irauli egin zuen Ardoik eta 20 segundoren faltan bi puntuz aurretik jarri zen. Orduan, Nuria Maurtuak sekulako hirukoa sartu zuen, durangarrei puntu bateko aldea emanez.

Hurrengo jokaldian iritsi zen polemika. Epaileak kiroltasunik gabeko falta adierazi zion Huertari: hortxe amaitu ziren durangarren esperantzak. Alberto Molina entrenatzaileak onartzen duenez, partidu amaieran jokalaria "haserre" zeuden epailearen erabakiarekin: "Partidu horrek ez du atzera-bueltarik, eta nire hausnarketa da azken partiduetan atera ezinik genbiltzan jokoa atera genuela".

Arantza hori ateratzeko modurik azkarrena biharkoa da,

etxean Autocares Artiedaren kontra jokatuko duten partidua. Nafarrak azken aurreko daude, partidu bakarra irabazita. Garaipenaren bidera itzultzeko eta goiko postuetara hurreratzeko partidu aproposa dirudi. ■ J.D.

Bihar Autocares Artieda talde nafarraren kontra jokatuko dute etxean

"Bigunegiak" izateari utzi eta garaipen bila

DRTk Bartzelonaren kontrako akatsak zuzendu behar ditu Oviedo menderatzeko

Azken jardunaldian, Bartzelona Unibersitariok, ezer askorik egin gabe, nahiko erraz irabazi zion Durango Ilarduyari (28-7). Aratz Gallastegi entrenatzaileak baloia jabetza errazegi galdu zutela uste du: "Bigunegiak izan ginen baloia eskuetan genuenetan. Baloi asko eta asko ia-ia eskuetatik lapurtzen utzi genien. Jarrera oso biguna izan genuen,

Emakumeek ere galdu egin zuten Gaztedi liderraren kontra Arripausuetan

eta euren, larregi egin gabe, partiduan erraz agindu zuten". Partiduko ondorioz positiboen taldearen "ahalegin fisikoa eta gazteek taldearen parte izaten jarraitzen dutela da".

Dena dela, bihar beste jarrera bat erakutsi beharko du Durangoko taldeak, Oviedori irabazi nahi badio. DRT azkenurreko dago sei punturekin, eta Oviedo laugarren 14rekin.

Emakumeen talde nagusiak ere ezin izan zuen Gaztedi menderatu (5-30). Dena dela, taldeak sailkapenaren goialdean ondo kokatuta dirau oraindik, (hirugarren postuan), baina orain Gaztedik bederatzu puntuko aldea hartu die. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto futbol entrenatzailea



Aurrera begira

Aspalditik nabil Kirolene (Kirol Ikaskuntzen Eskola) areto-futbola bultzatzeko egiten dabilen apostuari buruz berbetan, eta horren adibide prestatzen dabilzen hitzaldiak doguz. Mikel Azkorra irakaslea eta Ramon Fernández ikasketa-burua sekulako ahaleginak egiten ari dira hitzaldi horretan txosten-emaile onenak edukitzeko; eta ezin dogu esan lortu ez dabenik.

Abenduaren 18an, Durangoko institutuan, Javier Lozano Areto Futbol Ligako Presidentea (eta espainiar entrenatzaile ohia) izango dogu taldeen zuzendaritzari buruz hitzaldia emoten, eta martxoaren 26an, barriz, Venancio (egungo espainiar entrenatzailea) etorriko da. Baina ahaleginak ez ditue hor amaitu, ezta gitxiagorik be, eta lanean jarraitzen dabe oraindino lehenengo mailako beste hainbat hitzaldi lortzeko helburuagaz (Candelas, inter-movistar-en entrenatzailea; Paco Beltrán, A.N.E.F.S.-en presidentea eta DKV Zaragozaren entrenatzaile ohia; edo Javier Cuevas L.N.F.S.-ko arbitroa izandakoa).

Berbaldi horreekin, Kirolenek helburu bi lortu gura ditu. Batetik, Euskal Herrian areto-futbola indartzea (entrenatzaileen prestakuntza hobetuz) eta, bestetik, Kirolene ikastegia ezagutaraztea; eta durangarroi horrekin gozatzeko aukera ezin hobea eskaini deuskue.

Itxaroten dot hitzaldiak sekulako arrakasta izatea. Areto-futbola bizirik!

Adituarentxokoa

Gimnastarik onenek ikusmina sortu zuten Euskalgym jaialdian



K. Aginako

Euskalgym09 jaialdiaren laugarren aldiak aurreikuspenak bete zituen. Itxaroten zen legez, zaleek goraino bete zuten Landako kiroldegia eta, segurutzat jotzen zen moduan, Eugenia Kanaevak eta gainerako izarrek dir-dir egin zuten. Txapelketari dagokionez, gaur egun Espainiako txapeldun den Eibarko Ipurua taldeak irabazi zuen; Iruñeko Anaitasuna eta Donosti taldeak geratu ziren bigarren eta hirugarren. Seniorretan Móstoles izan zen txapeldun; gazteetan Leioako Sakoneta; eta haur-kategorian Eibarko Ipurua.

A CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

Arratibel eta Jauregi Cafés Baqué irabazteko hautagai sendoak dira

Erakustaldi handiak emanda sailkatu dira kadete eta gazte mailako finalerdietarako



Partidu gogorra eta orekatua jokatu zuten Mikel Lanak eta Iraitz Arrietak. Kepa Aginako

Herenegungo jardunaldien ondoren, erabakita geratu dira Cafés Baqué Torneoko finalerdiak. Kadeteetan Esteban-Jaka eta Elezkano-Arratibel lehiatuko dira. Gazte mailan Egiguren-Jauregi eta Ezkurdi-Arrietaren arteko partiduetatik irtengo dira finalista biak. Finalerdiak Atxondoko pilotalekuan jokatuko dituzte, eguaztenean, 19:00etatik aurrera.

Arratibelek ederto aprobeixatu zuen bere garaiera aurkaria atzean menderatzeko

Joan zen eguazteneko partiduetatik azpimarratzekoa da lehiari ekiten zioten lau pilotariak —teorian faborito beharko luketenek— galdu egin zutela. Sailkatu zirenetatik pilotari bi txapela janzteko faborito moduan nabarmendu daitezke. Kadeteetan, Ibai Arratibelek 18-9 irabazi zion Sabin Guarestiri. Ataundar garaiak ederto baliatu zituen bere beso luzeak aurkaria

menderatzeko; aurrean, berriz, dejada zehatzak bota zituen.

Gazteetan Iban Jauregi zarauztarrak —Ataungo pilota eskolagaz jokatzeko du— erakustaldi ikaragarria eman zuen. Joseba Etxebarriari ez zitzaion erauntsiari men egin beste erre-medioren geratu (22-6). Jauregik bizi erabili zuen pilota, oso bizi ere, eta aurrean dena irten zitzaion: bi hormakoak, dejadak, ezker-zeharrak... Arriskatu zuen guztia. Olaburun batutako zaleak harrিতuta utzi zituen. Gazte mailan, bera eta Ezkurdi dira finalerdietako faboritoak.

Jauregik pilotari sena daukala erakutsi zuen: asko jo, erraz amaitu eta bizi ibili

Kadeteetako bigarren finalerdiean Victor Estebanek 18-12 irabazi zion Apeztegiari. Estebanek ondo jokatu zuen eta Apeztegiak, aldiz, ez zuen bere mailarik eman.

Azkenik, gazteetan Arrietak Lana 22-15 menderatuta lortu zuen final atarirako txartela. Markinarrak zuzen jokatzeko nahiko izan zuen irabazteko. Lanak apenas arriskatu zuen; atzera jo eta jo aritzeko taktikak ez zion mesederik egin. ■ J.D.

Julza-Zaldia ondo emakume zein gizonetan

Saskibaloian Julza-Zalduko talde biek —bana gizonetan eta emakumeetan— oso indartsu hasi dute denboraldia. Batak zein besteak partidu bana bakarrik galdu dute orain arte.

Gizonak azken hiru garaipenak errenkadan lortu dituzte. Azkenengoa etxean eta Txurdinagaren kontra. Txurdinaga laugarren badago ere, zaldibartarrak erraz nagusitu ziren partiduan (99-65). Bihar Marrazoak taldearen kontra jokatuko dute.

Emakumeak bigarren dande Irlandesas eta Gernikarekin berdinduta. Iragan asteburuan xehatu egin zuten Paules taldea (82-29). Bihar Barakaldo lideraren aurka jokatuko dute. Beraz, lehen postuan amaitu dezakete jardunaldia. ■ J.D.

Emakumeek lidertza kendu diezaiekote Barakaldori etziko norgehiagokan

Lidertzan sendotzeko aukera Presion Break-ek

Areto-futboleko lehen erregionalean ditugun gure lau ordezkariak elkarren kontra jokatuko dute asteburuan. Horietako batean, orain arte partidu guztiak irabazi dituen Presion Break-ek lidertza defendatuko du Abadiñoko Lagunen zelaian. Irabaziz gero, sailkapenean segidan dituen aurkariak alden du ditzake; izan ere, Sumi

Berrizko taldeak ligan orain arte jokatutako partidu guztiak irabaztea lortu du

Muguru bigarren sailkatuak (puntu bira) eta Saltzaileak hirugarrenak (hiru puntura) elkarren kontra jokatuko dute. Gainera, berriztarrek Sumi Muguruk eta Saltzaileak-ek baino partidu bat gutxiago jokatuko du. Abadiñarrek, aldiz, beharrezko dute garaipena goiko postuetara hurreratzeko.

Bigarren derbian Elorrioko B eta Abadiñoko Gaztetxiek neurtuko dira. Elorrioko txukun dabil eta laugarren daude. Abadiñoko Gaztetxiek sailkapenaren erdian dago. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak


1- Real Sociedad B...31	15- Lagun Onak.....15
2- Amorebieta.....29	16- Santurtzi15
3- Beasain25	17- Portugalete15
4- Amurrio23	18- Retuerto13
5- Zalla22	19- Eibar B11
6- Kulturala21	20- Salvatierra.....6
7- Zamudio21	
8- Aretxabaleta21	
9- Basconia20	
10- Elgoibar20	
11- Gernika19	
12- Arenas19	
13- Leioa18	
14- Laudio16	

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Bidegintza.....6 (+48)
2- San Ignacio.....5 (+23)
3- Baskonia Fund....4 (+36)
4- Easo4 (+20)
5- Seky.es4 (-16)
6- Padura.....3 (-7)
7- Legarzia.....3 (-16)
8- Zomotza2 (-9)
9- Tabirako.....2 (-27)
10- Bide Bide.....2 (-52)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Ardoi7 (+138)
2- Bera Bera7 (+78)
3- Gernika6 (+118)
4- Las Gaunas ...6 (+34)
5- Cafés Aitona ..5 (+42)
6- Elexalde5 (+11)
7- Obenasa5 (-3)
8- Tabirako4 (+46)
9- Deusto Loiola .4 (+27)
10- Arabako EHU 4 (-5)
11- Abaroa3 (+4)
12- Getxo3 (-85)
13- Atletico SN2 (-52)
14- San Ignacio2 (-120)
15- Artieda1 (-97)
16- Irlandesas0 (-136)



Kulturalak 21 gol sartu eta 17 jaso ditu. Sei jardunaldi daramatza galdu barik.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Retuerto

Zapatuan, 17:00etan,

Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

Iurretako - Artibal

Zapatuan, 17:00etan,

Larraozelain

Zaldia - Umore Ona

Zapatuan, 17:00etan,

Solobarrian

BIGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

Abadiño - Basauri

Zapatuan, 16:45ean,

Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Berriz B - Lolu B

Domekan, 11:30ean,

Berrizburun

Elorrioko B - Ezkurdi

Zapatuan, 18:00etan,

Eleizalden

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrioko B - Erandio

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Zierbana

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroledegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga -

Aurrera Vitoria

Domekan, 10:00etan,

Landako kiroledegian

LEHEN ERREGIONALA

Elorrioko B -

Abadiñoko Gaztetxiek

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroledegian

Abadiñoko Lagun -

Presion Break

Zapatuan, 17:00etan,

Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Kurutziaga B - Ibaibide

Zapatuan, 18:00etan,

Landako kiroledegian

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

(emakumeak)

Tabirako - Artieda

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kiroledegian

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Tabirako - Rover

Zapatuan, 17:00etan,

Landako kiroledegian

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Tabirako - Berrio-Otxoa

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroledegian

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Ilarduya -

Arrasate

Zapatuan, 15:00etan,

Arripausetan

LEHENENGO MAILA

Durango Ilarduya B -

Oviedo

Zapatuan, 17:00etan,

Arripausetan

PILOTA

XXII. OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

Jaunarena-Mendinueta

Binaka:

Onsalo-Galarraga /

Rico-Keralt

Eguenean, 21:30ean,

Zaldibarko pilotalekuan

TXIRRINDULARITZA

Iurretako Txirrindulari Elkartearen urteko batzar nagusia.

Barikuan, 18:00etan, Goiuria

kulturgunean. Ondoren, afaria

Betixu jatetxean.

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



Pilar Ruiz
ileapaindegia

SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



Mª JESUS LUQUE
ileapaindegi unixesa

Kurutziaga
9 behea
94 681 43 89
48200 Durango

Estetika Zentroak



Parafarmazia Dietetika
Amara

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
apaindegia

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela-
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA
- MAKILAJEA
- MANIKURA • PEDIKURA
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER)

Fray Juan de Zumarrago, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
estetika

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalnen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izerrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ªC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
apaindegia

- LASER FOTODEPILAZIO MEDIKU-ESTETIKOA
- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango



- Amaia Zalba
- Parafarmazia dauka Durangon

Tratamendu naturala

Iridiologo bategaz hitzordua izateko aukera eskaintzen dozue. Hilabetean behin jasotzen dogu hemen iridiologo edo naturopataren bisita. Begiko irisaren bitartez gatak ezagutzen espezializatua da, eta gure kasuan eskaner bat be ekartzen dau. Modu horretara, gure gorputzaren barruraino heldu leiteke. Behin arazoa non dagoen zehatz jakinda, produktu naturalan oinarritutako tratamendua eskaintzen dau, eta hortik aurrera errebisinoak egiten ditu.

Zer jente etortzen da zita honetara?

Adin guztietako jentea etortzen da, umeengandik hasita helduenganaino. Familia osoak be etorri izan dira, esaterako. Era guztietako arazoak ekarri ditue. Gainera, kontsulta bakotxa 15 euro ordaindu behar da; nahiko merkea dela esan leiteke.

Zein da tratamendu honek dakarren onura?

Abantaila nabarmenena da ez daukala eragin sekundariorik. Tratamendu naturala denez, gauza bat hobetzeko ez dau beste bat kaltetzen. Jenteak hori asko eskertzen dau; geroago eta gehiago.

Zelako maiztasunez etortzen da iridiologoa?

Hilean behin etortzen da, eta zita eskatu leiteke. Hilaren 30ean da hurrengo hitzordua.

AUKERAKO IBILGAILU INDUSTRIALEN ESKAINZA APARTA

1.000€-KO

**DESKONTUA
MODELO
GUZTIETAN**



KANGOO FURGÓN CONFORT
1.5 dCi 65cv 5P (2005)

4.000 €

TRAFIC COMBI CORTO NORMAL 2900
1.9 dCi 100cv 4P
(2005)

9.200 €



MASTER COMBI MEDIO SOBREELEV.
2.2 dCi 90cv 4P (2005)

10.000 €

HILABETEA AMAITU ARTE! GAURSA-N

Prezio hauekin, baietz zurea aurkitu

MODELUA	KM	URTE	PREZIOA	MODELUA	KM	URTE	PREZIOA
KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 65cv 5P	103.000	2005	4.000 €	KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 70cv	KM II	2009	9.600 €
KANGOO FURGÓN AUTHENTIQUE 1.5 dCi 65cv 5P	82.000	2005	4.000 €	KANGOO FURGÓN GRAN CONFORT COMPACT 1.5 dCi 105cv	KM 0	2009	11.200 €
KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 65cv 4P	80.000	2005	4.900 €	TRAFIC COMBI CORTO NORMAL 2900 1.9 dCi 100cv 4P	108.100	2006	9.200 €
KANGOO FURGÓN AUTHENTIQUE 1.5 dCi 65cv 5P	90.000	2006	5.300 €	TRAFIC FURGÓN LARGO NORMAL 2900 1.9 dCi 100cv 4P	87.800	2006	9.700 €
KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 65cv 4P	78.394	2006	5.500 €	TRAFIC FURGÓN CORTO NORMAL 2700 1.9 dCi 100cv 4P	73.800	2006	10.900 €
KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 70cv 4P	66.200	2007	5.700 €	TRAFIC COMBI LARGO NORMAL 2900 1.9 dCi 100cv 4P	93.000	2007	11.850 €
KANGOO FURGÓN GRAN VOLUMEN 1.8 dCi 60cv 4P	66.000	2007	5.700 €	TRAFIC COMBI LARGO NORMAL 2900 2.0 dCi 115cv 4P	103.000	2007	11.850 €
KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 65cv 5P	82.600	2006	6.300 €	TRAFIC COMBI CORTO NORMAL 2700 2.0 dCi 115cv 4P	10.283	2008	12.500 €
KANGOO FURGÓN GRAN VOLUMEN 1.5 dCi 60cv 4P	70.000	2007	6.300 €	MASTER COMBI MEDIO SOBREELEV. 2.2 dCi 90cv 4P	134.000	2005	10.000 €
KANGOO FURGÓN EXPRESSION 1.5 dCi 70cv 5P	12.782	2008	8.100 €	MASTER FURGÓN CORTO NORMAL 3500 120cv 4P	89.100	2007	11.000 €
KANGOO FURGÓN EXPRESSION 1.5 dCi 70cv 5P	10.797	2008	8.200 €	MASTER FURGÓN LARGO SOBREELEV. 3500 2.5 dCi 100cv 4P	59.657	2007	11.150 €
KANGOO FURGÓN CONFORT 1.5 dCi 70cv 3P	6.018	2008	8.100 €	MASTER FURGÓN LARGO SOBREELEV. 3500 2.5 dCi 120cv 4P	109.026	2006	11.800 €
KANGOO COMBI AUTHENTIQUE 1.5 dCi 65cv 5P	32.500	2008	8.300 €	MASTER GRAN VOLUMEN 3500 2.5 dCi 120cv 3P	81.200	2007	12.600 €
KANGOO COMBI EXPRESSION 1.5 dCi 85cv 5P	35.500	2008	9.100 €	MASTER FURGÓN CC 3500 C. ABIERTA CON ARQUILLOS 120cv 2P	70.000	2007	12.600 €
KANGOO FURGÓN GRAN CONFORT COMPACT 1.5 dCi 70cv	KM 0	2009	9.500 €	MASTER GRAN VOLUMEN 3500 2.5 dCi 120cv 3P	72.577	2007	14.400 €

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

Prezioak deskontuak barne hartuta daude. Saliozkoak (IP-11-200) arte edo izan ez diren egortu arte. Zergak ez dira barne hartuta. Irudietako bertsioak eta eskaintza direnak ezberdinak izan daitezke.

**RENAULT
OCASIÓN**



GAURSA
ARRIANDI, 12. IURRETA. TELEFONOA: 94 620 33 00. www.gaursa.com



IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereizitua eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

partikularra ematen edo umeak zaintzen. Kotxea daukat. Tel.: 628 406 696 (Ixone)

26 urteko neska euskalduna astean zehar goizetan lan egiteko prest, umeak zaintzen edo antzeko zerbaitean. Tel.: 607 340 659

Neska euskalduna, portalak eta tabernak (gauetz) garbitzeko prest. Tel.: 664 146 904

Bertako neska eskaintzen da goiz zein arratsaldez umeak eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia askorekin. Tel.: 688 676 588 / 94 658 33 32

Neska euskalduna ume txikiren bat zaindu, euskara klase partikularrak eman edo mintzamina lantzeko eskaintzen da. Tel.: 686 809 628

Neska euskalduna goizetan, 10:00etara arte, etxeko lanak egin zein umeak eskolara eramateko prest. Tel.: 615 726 206

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Erorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreinatzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, Tel.: 699 846 219

Komuna eta atarte. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Otxandio. Pisua salgai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta despentsa. Tasatutako prezioan. Tel.: 675 905 227

Erorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trasteleku. Tel.: 657 793 993

Abadiño. Etxebizitza salgai Zelaietan. Sukaldea, bi logela, egongela, despentsa, balkoia eta bi komun. 90 m2. 234.000 euro. Toki lasaian. Garajea aukeran. Tel.: 652 750 293

Durango. Etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta ganbara. 80 m2. 12 urte. Tel.: 656 711 625 edo 659 768 037

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

ERRENTAN EMAN

Durango. Pisua alokagai. Komuna, sukaldea, lau logela eta egongela. Tel.: 657 795 495

Erorrio. Etxebizitza alokagai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trasteleku. Tel.: 657 793 993

Erorrio. Lokal bat alokatzen da etxebizitza izateko. 150 m2. Nahiko merke. Tel.: 688 632 078

Abadiño. Pisua alokatzen da Muntzaratz. Jantzia, bi logela, bi komun eta garajea. Eraiki berria. Tel.: 687 579 705

ERRENTAN HARTU

Erorrio. Pisu bila nabil. Jantzita edo erdi jantzia. Berogailuarekin. Tel.: 94 658 21 91.

KONPARTITU

Durango. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. Alde zaharrean. Lehenbailehen. Tel.: 656 771 662

Etxea konpartitzen dut. Logela bat errentan. Tel.: 657 700 321 (Roman).

Zaldibar. Pisukide gazte baten bila nabil pisua konpartitzeko. Tel.: 685 724 619

MOTORRA

SALGAI

Renault Megane Scenic Kaleido 1.9 DTI salgai. Diesela, aire girotuarekin. Irrati-kaseta CD kargadorea, alezioko llantak, itxiera zentralizatzailea, airbaga, ABSa, norabide laguntzailea eta kristal-jasogailu elektrikoak. Kateak eta ekipaiarako barrak opari. 3.900 euro. Tel.: 653 726 708

Kia Sportage 2.0 TDI salgai. Bola eta aurreko paraxokea barne. Beti garajea gordetako. Egoera oso onean. Tel.: 617 476 685

Mazda 6 Diesel salgai. Familiarra.

LANA

ESKAERAK

Emakume bat behar da umea eskolara eramateko (07:30etik 09:00etara) eta etxeko lanak egiteko (ordutegia zehazteke). Tel.: 656 764 504

Garai. Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Astelehenerdik ostiralera arte, egun osoan. Kotxea beharrezkoa da. Tel.: 618 822 048

Berriz. Umea zaintzeko pertsona behar da. Tel.: 619 626 670

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenurako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea.

Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea

eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritza lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urrian hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erref.: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du hedabide digital baterako. Derrigorra da heziketa eta esperientzia izatea, euskara eta webmasterra menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 8.316. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Abadiño. Administrazio laguntzailea behar da aholularitza enpresa batean, departamendu pertsonalerako. Egun erdiz lan egiteko. Derrigorra da Lan Harremanetako diplomatura azken lau urteetan eskuratua izatea, praktiketako

kontratua egin ahal izateko; Nominen Foke programa ezagutzea, kotxe propioa eta Durangaldean bizitzea. Erref.: 8.526. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durangaldea. Bilboko enpresa batek aseguru merkataria behar du bezeroak lortu eta mantenurako, baita ordezkariarako ere. Derrigorra da 28-50 adin tartekoa izatea, diplomatura eta esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. 2010eko urtarrilean hasteko, egun osoz. Erref.: 8.527. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Zuzendaritzako idazkaria behar da aurkezpenak egiteko, ingelesez komunikatzeko, administrazio lanak egiteko eta proiektuak garatzeko. Derrigorra da arloko formazioa izatea, ingeles maila altua eta ordutegi malgua izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 8.558. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINTZAK

Neska euskalduna goizez zein arratsaldez lan egiteko prest, klase

GALDERA:

Zenbagarren aldia beteko dau aurten Euskal Liburu eta Disko Azokak?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jatekarako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 lurreta edo astekaria@anboto.org helbideetara, Hilarren azken alean agertuko da irabazlea.




Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola-Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

DENPORAPASAK >

	* Irudiko altzaria Heldu diura	Boladan daudenak Garai, ordu	Zekor- okela
	Helburu		
	Behazun		
Biraok esaten ditu Hilabete guztietako	Pl. musika tresna Larrera eraman		
Detekta- gailu mota Pl., borro- ka kirola			Kontso- nantea Habia, erruntoki
Zuhaixka mota Bihi, garau		Lau zati bi Gibela	
	Gauza (Infin.) Agortu		
Nafarroako herria Geziak			Kendu aditzaren oina
Arnas ezak hil Aiako auzoa		Baita Kontso- nantea	

1

5			4	7	
3	6		8	1	
	8		5	7	2
	7	6		2	
2		9		3	6
8				5	
			2	5	
4	3			8	5
					7

2

9	8		1		
1			7	3	
		7			2
				3	8
6	9	2			7
			6		
					1
4	9				
				9	8
					5
			7	6	
					9

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Hain intimista izanda, batzuetan beste nonbait zagozela emoten dau. Ruperren betaurrekoak ipintzea bakarrik falta jatzu...

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Munduak ez dau zure bizitzaren inguruan buelta emoten. Aktore gehiago dagoz pelikula honetan...

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Txanogorritxo eta otsoa emoten dozue hartu-emona hasi zenduenetik. Ez ete da amama bidean agertuko?

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Sentsazio txar horreek arrazoiren bat edukiko dabe. Non ete daukie sorburua? Aste honetan hartu hausnarrerako denpora.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Zureak ez dauka erremediorik. Azkenean gaixotu egingo zara! Eskerrak diru aldetik txarto ez zabilzen...

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Beti zenbakiei begira zabilz: dirua, loteria, neurriak, pisuak... guztia kontrolpean izatea gura dozula dirudi. Lasaitu zaitze.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Telebistan komiko asko agertzeak ez dau esan gura ofizio erraza denik. Gatza eta piperra falta dozu, lagun!

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Pentsatu egizu tunela noizbait amaituko dela; ilunaren bukaeran argi izpi bat ageri dela. Itzi pesimis-
moak atzean.

Sagitaris
azaroak 24 - abenduak 23
Lana, lana eta lana. Lanerako bizi gara ala? Beste gauza batzuei be garrantzia emon, ahal den heinean behintzat.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Denok egiten doguz hankasartzeak lantzean behin, eta zeuri tokatu jatzu oraingo honetan. Hartu umorez, eta egin aurrera!

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Zure gorputzari eta itxurari kasu gehiago egin gura deusazula? Emon begiratu bat Anbotoren *Edertasun Gidari!*

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Udazkenak gorputzak hozten ditu, baina ez egiozu itzi hotz horri bihotzera ailegatzten!

ZORION AGURRAK > agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Iker San Antonek azaroaren 17an bost urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi bat, familia osoaren partez.



Apeko **Elxepetar Beñatek** azaroaren 19an 16 urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi bat, zure familiaren partez. Mutil handi!



Ane, Patxiren eta Itziarren umea jaio da. Zorionak eta mosu handi bat, Mallabiko familiaren partez. (Luis, Lurdes, Mikel eta Ainara)



Zorionak **Izaskun** eta **Jose Luis!** Dagoeneko 39 urte elkarrekin daroazuez. Mosu handi bat seme-alaba eta iloben partez.



Zorionak Matienako dantzari onenari, Astolako familiaren partez. Batez be, aita eta amatxoren partez. **Julen**, mosu handi bat, guapeton!



Ongi etorri, **Izane Buruaga Fernandez!** Azaroaren 9an mundura etorri zara. Eskerrik asko ekarri dozun poztasunagaitik.



Zorionak Pakitaaaa! Urteak aurrera badoaz be, gauza batzuk ez dira sekula aldatzen, e? Holan jarraitu. Patxo piloa, lagun partez.



Iñigo eta **Eneko** garaitarrek azaroaren 9an eta 12an urteak egin zitueen. Zorionak arratsaldeetako pilota partiduetako lagunak, kartetako bikoteen eta beste lagun guztien partez.



Zorionak **June!** Mosu handi bat, familiako guztien partez. Konturatzera hiru urteko andratxo bat daukagu gurean!



Zorionak, **Itziar!** Azaroaren 22an urteak egingo dozuz. Zorte on zapatuan, ondo amaitu asteburua. Ahaztu barik, asteburuan pastela.



Edorta Olabarrietak urteak egingo ditu domekan, azaroaren 22an. Zorionak, etxekoen partez, Holan jarraitu, hain umoretsu.



Zorionak politikok! **Aitziber** eta **Nekane** azaroaren 24an urteak egingo ditue. Distantziak ez daiala zuen irribarrerik galarazi! Gogor egin, begi urdin! Mosu potolo-potolo bat, etxekoen eta, batez be, Onintzaren partez.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko menua 11€



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostiralera. Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Asador Goiuria

Goiuria auzoa. Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Betiko sukaldaritza.
Egur labea.
Berezitasunak:
Arrainak eta haragi erreak.



Julen Orbegoza
Kazetaria

Burujabetasuna

Fabrikatu da albistea: "Extremadurako gobernuek diru publikoa bideratzen dute gazteen artean masturbazioa sustatzeko". Harriduraz jasoko du berria hango zenbait gaztek; adurra dariola beste askok; eta hemengoek? Hemengoek inbidiaz. Burujabetasuna han eta hemen hizpide izanda, hemengoek jakin badakitelako bidezko masturbazio egokiak are eta burujabeagoak izateko balio duela.

Albistek, morboaz aparte, baditu beste hainbat konnotazio: populismoa edo/eta ausardia politikoa, esaterako. Gehiago jakin gura dut eta banoa informazioaren sorburura. Jakin dut "masturbazioa sustatzeko kanpaina" hori sexu-hezkontzaren arloko ikastaro bat baino ez dela. Gobernu-iturriek diote 14.000 euro bideratu dituztela 14 eta 17 urte bitarteko gazteen "afektibitatea eta autoestimua" hobetzeko. Tartean, gaietako bat masturbazioa dela.

Eta gogoratu dut gobernuek milioikada itzelak oparitzen dizkietela bankuei; eta pentsatu dut 14.000 euro edozein presidenteren jantziak erosteko gastatzen dituztela; eta ohartu naiz, bankuek eta jantzi dotoreek ez dutela krisialdirik uxatzen; eta ondorioztatu dut, krisiarekin estu gabiltzanean, produktuak erostek hain zoriontsu egiten ez gaituztean, gozamina ezker-eskuin, gure esku bakarrean uztea ondo dagoela.

Ikastarookin gazteak autodidakta izateari uko egingo diotela idatzi du zutabegile batek. Kanpaia jotzeak orain duen sekretismoa eta klandestinitatea galduko duela; batez ere, etxeko-lanak egiteko agindua izanez gero. Finean, gizakiak duen arautu gabeko esparru bakarretakoa ere arautzen saiatzen ari direla.

"Pilotari gazteek ez dabe ordu nahikoa egiten frontoian"

Enrike Agirrebeitia pelotari izandakoa da eta Olazar Txapelketa antolatzen dau Zaldibarren

Frontoian jarri dogu zita Olazar pilota txapelketa-ko arduradunagaz. Pilotari gazteak txapelketan parte hartzera deitzeko partiduak ikustera joaten den horreetakoa da Enrike Agirrebeitia. Profesionaletara pasatu diren gehientsuenak Olazarren parte hartutakoak dira, Enrikek begi ona daukan seinale.

Noiztik zabilz Zaldua Kirol Elkar-terko pilota arloan?

Zaldibarrera ezkondu nintzen 1976an, eta hurrengo urtean ekin neutsan. Zuzendaritzan hasi nintzen eta hamar urte inguru daroaz daz presidente.

Urteotan zer aldatu da?

Orduan askoz zaleztasun handiagoa zegoen. Orain

futbolera afizino handiagoa dago.

Olazar Txapelketa antolatzen dozu. Lan handia izaten da?

Txapelketa jokatzeko denboran barik, urte osoan jarraitu behar dozu pilotari gazteak zelan dabilzen. Ordua heltzen denean, onen-etsuenei deitu eta antolatzen dogu.

Pilotari gazteen ibilbidea ezagutuko dozu...

Inguruetako txapelketak ikustera joaten naz. Partiduetara ez banaz joaten, komunikabideetan irakurtzen dot.

Pilotak be aukeratzen dozuz.

Txapelketa on bat egiteko, gustua behar dozu pilotak ipintzen. Punpari, modan jarri den Iparraldeko enpresari erosten deusadaz. Jenteak modan dagoena gura izaten dau. Beti ibilitako Zipri Sestaokoari eta Arroiabe elorriarrari be bai. Hautatzaile legez materiala aukeratzen be ibiltzen naz batzuetan.

Entrenatzaile be izan zara.

Urte batzuetan ibili nintzen mutikoak entrenatzen, baina ordutegi aldetik arratsaldeak libre izatea behar dozu.

Afizionatuetan pilotari izandakoa zara.

Andikoan frontoia egin zenean hasi nintzen, gaztetan, pilotan. Lehenengo txapelketa hamalau urte gaz jokatu neban Berrizen. Azkenengoa berrogeigaz. Beraz, hainbat urtean makina bat buelta emon izan dot frontoirik frontoi.

Zelakoa da pilotariaren bizimodu- dua?

Momentu horretan irabazteari

emoten deusazu garrantzia gehien. Jente asko ezagutzen dozu eta amistade asko egiten dozuz. Herri guztietako jaietan jokatzeko genduen. "Torneo de Federaciones" jokatzeko gero, txapelketetan eta udan ia jai guztietatik deitzen euskuen.

Pilotari asko parrandazaleak direla dinoe.

Kirola eta parranda denok egiten genduen, baina batetik bestera aldea dago. Gauza bakotxa bere neurrian egin beharra dago.

Zein pilotari dozu gogokoen?

Durandaldean afizionatuetan Larrinaga debutatzekoan dago. Jaunarena leizarra eta Idoate nafarra be ondo dabilz.

Profesionaletan?

Juan Martinez de Irujo eta Olai-zola II.a dira profesionaletan ondoen dabilzenak. Biak Olazar Txapelketan izan genduzenez, biak ezagutzen ditut.

Olazar Txapelketa pilotari gazteen erakusleihu izaten da.

Profesionaletan dabilzen pilotari gehienak pasatu dira hemendik.

Harrobia sasoi onean dago?

Mutikoek ingelesa, futbola eta beste hainbat kontu ditue. Ez dabe ordurik emoten frontoian, gure denporetan edo gaur egun Nafarroan egiten daben legez.

Pilotan jokatzeko jarraitzen dozu?

Lagun talde bat astero batzen gara, Mañarian, eskupilotan jokatzeko.

Dantzan egitea be gogoko ei dozu.

Gazte-gaztetatik nabil erromerietan dantzan. Beti gustatu izan jat. Ikastaroetara be joaten gara beste dantza batzuk ikasteko, eta AIKOran be bai.

LUZE

7



Enrike Agirrebeitia •

Berriztarra

60 urte



Bialdu zure oporraldiko argazkiak eta EROSKI BIDAIAK en eskutik 'Villa de Llanes' hotelean, asteburu bateko egonaldiko zozketan parte hartu!

astekaria@anboto.org



zurekin